



ELKARRIZKETA: HILARIO ARANSAEZ, ASEGARCEKO ARTEKARIA

# Arrasate

P R E S S

2000.eko  
apirilaren 14a  
492. zenb.

## Euskal dantzak biziberritu nahian

Igandean, Debagoieneko Dantzari Eguna

IKUSPEGIA: IKER EZPELETA • EUREN IKUSPUNTUTIK: PEDRO LASAGABASTER  
KIROLA: AUKEA SARIAK • KULTURA ELKARRIZKETA: DANIEL LASKURAIN

# GRUPO **RKUZ** 1950-2000

**50 urte**



Araba Etorbidea 5  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Araba etorbidea 20  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Mitarte 3  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



Asunción, 1  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**



## ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

**Presta zaitez oporretarako!  
Eroso ibiltzeko behar duzuna daukagu!**



### BAINU JANTZIAK:

- Bularrak ondo eusteko.
- Modako diseinuak.

### SANDALIAK:

- Alemaniatic ekarritakoak.
- Atsedenerako plantillekin.

### ZAPATAK:

- Errejilladunak.
- Orto Lagunek eskusibian enkargatutakoak.



Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

# 200 milioiko "oparia"

Aste honetan bete da Gurea gaztetxe bezala okupatu zeneko hamalagarren urteurrena. Hamalau urte hauei aurretik gazte asanblada mugimenduak duen denbora batu behar zaio.

Istorio aberasgarri bezain zaila bertan Arrasateko gazteriaren zati batek bizi izan genuena -ni neu ez nintzen oso kontziente, gaztea bainintzen, baina esperientzia positibotzat daukat-. Gurearen bukaera traumatikotzat jo dezakegu, baina nik zera nabarmenduko nuke, giltzak udaletxean uztean "egizue zeuek hobea" esan zitzaiola. Udaletxean, ez dakit zein alternatiba lantzen ari zirela, erantzuna.

Gauza jakina da udaletxearendako gaztetxearen kontua buruko min bat besterik ez dela eta haiengandik espero zitekeen gauza bakarra jaso zen: Ahanz-



Iker Ezpeleta

tura. Hala, badira bederatzirte -apirilean beti, bai-kalistroetan mugitzen ginen gazte talde bat gaur egungo gaztetxearen lokalera sartzen hasi ginela. Bertan geundela, lokala gaztetxe moduan erabiltzea otu zitzaigun, ondoren gazte asanblada antolatu, ekintzak, Beraz, gutzit inprobisatua izan zen gauza, aurrekoarengandik zeharo desberdina eta hasiera motel hartatik sumatzen zen hutsune bat betetzen joan ginen.

Denbora pasa ahala, eta azpiegitura eskasa medio, arazoak sortzen hasi ziren -gazteek arazorik sortzen ez badute, akabo- bizilagunekin eta, horren ondorioz, udalarekin. Gure proposamena, une hartan, gauzak ganoraz eginez zarata eta zikinkeria bukatzea zen. Baina udaletxeak temati, ezetz, lokal hura behin-behinekoa zela eta ezin zela obra

handirik egin. Jakina denez, behin-behinekotasun horretan bederatzirte daramatzagu jada, horrek guztiak dakarren geldotzearekin. Zerbait aldatu nahi izanez gero- atea, leihoak, ez zuela merezi eta zain egoteko.

Orain, berriz, kriston opariarekin e dator udala; 200 milioiko gaztetxe berria. Nik neuk behintzat ez dut opari bezala ikusten, hamabost urteko lanaren ondorioz lortutako garaipen bezala baizik. Dena dela, garaipen hau gazi-gozo suerta ez dadin erronka berri baten aurrean aurkitzen gara: gaztetxe berri bat eraiki behar dugu.

Horretarako, lehengo inertzia zaharrak alde batera utzi eta jendearen parte hartzea bultzatuz, gauza polit bat egin dezakegula uste dut. Orain da ueña jende artean entzun ditudan betiko lelo horiek alde batera uzteko; gutxi batzuen getoa dela, zikina dela, ez dela parte hartzea bultzatzen,...

Lelo horiek guztiak ez dute aurrerantzean baliorik izango, gauzak aldatzen saiatzen ez direnen artean behintzat. Bizipen berriak datoz gaztetxera; saiatzen ez denak jai dauka!

## Erronka berri baten aurrean gaude: gaztetxe berri bat eraiki behar dugu

*"Mundu finitu honetan kontrolik gabeko hazkundeak biosferaren erabateko degradazioa ekarriko du".*

Pedro Lasagabaster

# 2.322

odol emaile izan zituen iaz Arrasatek eta urtebetean 588 litro odol eman zuten.

Munduko Osasun Erakundeak gomendatzen du 1.000 bizilaguneko 50 odol emaile izatea eta Arrasate gainetik dabil, 53 ditu eta. Odol emate bakoitzean 450 cm<sup>3</sup> odol ateratzen da.

### AURKIBIDEA

<i>Ikuspegia</i> . . . . .	<b>3</b>	<i>Asteko gaia</i> . . . . .	<b>20/21</b>
<b>Iker Ezpeleta</b>		<b>Euskal dantzak</b>	
<i>Irakurlea idazle</i> . . . . .	<b>4</b>	<b>biziberritu nahian</b>	
<i>Inkesta</i> . . . . .	<b>5</b>	<i>Aurrez aurre</i> . . . . .	<b>22/23</b>
<i>Euren ikuspuntutik</i> . . . . .	<b>6</b>	<b>Hilario Aransaez</b>	
<b>Pedro Lasagabaster</b>		<i>Eskola kirola</i> . . . . .	<b>25</b>
<i>Begi kolpez</i> . . . . .	<b>7</b>	<i>Zaldibarko areto</i>	
<i>Asteko hitzorduak</i> . . . . .	<b>8/9</b>	<i>futbola</i> . . . . .	<b>26/27</b>
<i>Astearen erreposao</i> . . . . .	<b>10</b>	<i>Kirolak jokoan</i> . . . . .	<b>27/28</b>
<i>Orain eta hemen</i> . . . . .	<b>12/14</b>	<i>Kulturaren</i>	
<i>Txutxumtxuak</i> . . . . .	<b>15/16</b>	<i>txokoa</i> . . . . .	<b>30/31/32</b>
<i>Auzoz auzo</i> . . . . .	<b>19</b>	<i>Ikusi eta entzun</i> . . . . .	<b>34/35</b>
<b>"Altamirako" jaiak</b>		<i>Azoka plaza</i> . . . . .	<b>36/37</b>
		<i>Foto zaharra</i> . . . . .	<b>38</b>

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala, **Zuzendaria:** Marijo Deogracias, **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria, **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe, (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92), **Zuzentzailea:** Arantzazu Loloi, **Administrazioa:** Agurtzane Galizarain, Ane Berrober (Tel.: 943 71 23 90) **Disenatzaia:** Maddy Trubuelo, **Asteburuetako berriemaileak:** Monika Belastegi, **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Carmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Salla, **Banaketaren arduraduna:** Naiara Odrizola-AED, (Tel.: 943 77 12 28), © ARRASATE PRESS, **Tirada:** 6.400, **Lago-Gordailua:** 1124/88, **ISSN:** 0214-4654, Frankeo kontzertatua, **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuagatzen egiten da.

Azala: Jokin Laspiur.

Arrasateko Udaleraren laguntzaz  
Gipuzkoako Foru Aldizkariaren laguntzaz  
Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Saileraren laguntzaz

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetzeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Igualarria 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) 943 79 99 00  
(emakumeak) 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Deiak 112  
Gurutze Gorria 943 76 55 76  
DYA 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11  
Arrasate  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11  
Aretxabaleta 943 79 74 58  
Aramaio 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazki 943 45 87 44

### Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11  
Bergara 943 77 91 06  
Arrasate 943 79 14 39  
Aretxabaleta 943 79 10 52  
Eskoriatza 943 71 44 07

### Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62  
Gasa 900 40 05 23  
943 79 78 44  
943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak 943 79 12 22  
PESA 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

### Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

## GUZTIOK BATERA ALDERIKERIARIK GABE ABERRI EGUNA 2000, ATXABALTAN

2000. urtean gaude eta 1981. urtetik aurrera, Aberri Eguna alderdiaren arabera ospatu izan da. Hau da, Aberria bakarra izan arren Aberri Eguna ospatzeko deialdiak asko izan dira.

Atxabaltan Aberri Eguna bateratua egitea pentsatu dugu, alderikeriak alde batera utzita, denok bat eginik. Egun horretan ez da igarri behar abertzale bakoitza zein alderditakoa den: abertzale moduan ospatu nahi dugu, atxabaltar moduan.

Gure Herri honen erai-kuntzan guztiok batuta egon behar dugu, eta ez legoke batere gaizik, batuta egote hau Aberri Egunean eta herriz herri bizitzen hasiko bagina; agian, herriz herri, denok indarra eginez, Euskal Herriaren burujabetasuna gertuago edukiko genuke. Euskal Herri honen burujabetasuna, urtean behin abertzale guztiok bat egiteko gai ez bagara?

*Atxabaltako Aberri Eguna Taldea*

## Gutunen araudia

Arrasate Pressen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira, nahita ez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Horik gorakoa balitz, laburtzeko eskubidea izango du erredakzioak. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimoak eta gaitzizen edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordean kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingaririk ez da argitaratuko.
- Gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du, egilea bera dela egiaztatzen. Telefono zenbakia nahikoa da horretarako.

## Administrari berria

Ane Berezibar Uriarte da martxoaren 2az geroztik ARKOko administraria, Maite Urriolabeitiaren orde. 26 urte ditu mondragoetar honek eta Enpresa Zuzendaritza eta Administrazio lizentziatura egin du Oñatin.

Ikerlanen aritu zen lanean administrazio departamentuan eta ARKOn ere izan genuen 1993an praktikak egiten.

Hilabete honetan langile fina dela erakutsi digu eta dudarik ez, aurrerantzean



ere hala izango dela. Ongi etorri, Ane!

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

### Ostirala, 14

- Amezua, Santa Marina

### Larunbata, 15

- Zabala, Zarugalde

### Igandea, 16

- Ruiz, Maalako Errabala

### Astelehena, 17

- Morales, San Andres

### Asteartea, 18

- Azkoaga, Ferrerías

### Asteazkena, 19

- Azkoaga, Iturriotz

### Osteguna, 20

- Korkuera, Musakola

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE


# Txakurrak lotuta eta muturrekoaz eraman behar direla eta, zer diozu?

Hala erabaki du Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez.




**Garbiñe Tera**  
(19 urte)  
Ikaslea

Ez dut ondo ikusten, eurek ere askatasuna behar dute eta.



**Jesus Gorrotxategi**  
(69 urte)  
Erretiratua

Zenbait txakurren kasuan ondo ikusten dut, baina txikien kasuan ez. Baina oldarkorrenzat ondo legoke.



**Jose Luis Rodriguez**  
(75 urte)  
Erretiratua

Arriskutsuen kasuan ondo dago, baina txiki-txikiengantz, gehiegi da.




**Josefina Etxebarria**  
(73 urte)  
Erretiratua

Oso ondo eta gainera poltsa eraman beharko lukete euren zikinak jasotzeko.



**Izaskun Aranburu**  
(47 urte)  
Langilea

Nik txakurra daukat eta badakit txakur batzuek pertsoneri eraso egin dietela, baina denak ez dira horrelakoak. Arriskutsuentzat ondo dago.



**Pedro Garrido**  
(48 urte)  
Langilea

Oso ondo. Beno, txikien kasuan, ezer ez dutela egiten uste dut eta... baina bestela, guztiak joan beharko lukete horrela.



**Iñaki Dorado**  
(18 urte)  
Langilea

Ondo, ume txikiengantz ondo, batez ere txakur handiak badira.



**Enara Gomez**  
(11 urte)  
Ikaslea

Oso ondo. Txakur txikiak ez, bestela guztiak.

## Focus TDdi

Injekzio zuzena  
2.019.000 pta.

Prever plana  
eta deskontuak barne

**MUGARRI**

943 79 07 44

*Sagardotegia Txotx egin!*

**ITURRIETA**

Artaga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO

**ILE APAINDEGIA**

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

USTEAK USTE

Armadarik ez

**E**UDIMA, Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatea, ez-legezkatat jo du EAEko Epaitegi Gorenak. "Udalerriek ez dute legitimitaterik Armadarekin ez kolaboratzeko; izan ere, eginbehar hori ez da Armadari laguntzeko, Espainiaren eta espainiar guztien interesen alde baizik".

Hamaika urte dira antimilitaristek intsumisioari ekin ziotela. Armadarekin ez kolaboratzearen, ez zirela soldaduzkara joango! Euskal Herriari Espainiako eta Frantziako armadekin kolaboratu beharra tokatzen zaie soldaduzka egiteko adinean dauden gazteei. Baina intsumisioari esker, eginbehar horrek, betebehartzat zuen irudia galdu egin zuen. Dagoeneko inork gutxik uste du soldaduzkara joatea betebeharra denik.

1987an EUDIMA sortu zen. Armadari soldaduzka egiteko adinean dauden gazteen zerrenda bidaltzeko betebeharra dute udalek. Eta hauek ere intsumisio egitea erabaki zuten.

Desobedientzia zibila ez da delitua eta antimilitarista izatea ere ez.

Marijo Deogracias



Etorkizunerako planak

\* Pedro Lasagabaster

**I**ragana etorkizuna baino hobeto ikusten duenari oker dabilela esango nioke. Ezkorra izateak mesederik ez dakarrela iruditzen zait. Hala ere, gaurko gizartea krisi sakonean dago. Erabaki garrantzitsu eta oso zailak hartzeko garaia dela uste dut, sekula baino gehiago Lurraren etorkizuna gure eskuetan dagoelako.

Lurra oso zabala dela diotenari, momentuz gizateriak duen bizileku bakarra dela erantzungo nioke, eta munduko giza populazioaren hazkunde tasak geldiezina dirudiela (eliza katoliko santuaren bedeinkapenarekin), eta planeta gero eta txikiago gelditzen ari zaigula.

Mundu finitu honetan kontrolik gabeko hazkundeak biosferaren erabateko degradazioa ekarriko du. Guztion etxea behin betiko hondatuz gero, hurrengo belaunaldien etorkizuna beltza izango da. Baita Lehen Mundu honetan ere: gure bizi mailari eusteko Hirugarren Mundua pobrezian behar dugu, eta hau

ezin da jasangarria izan. Harrokeriak alde batera utzi eta Lurra zaindu behar dugu.

Baina, nola zaintzen da Lurra? Gauza bat badakigu: orain arte erabili dugun garapen ereduak ez da egokia. Estrategia berri bati ekin behar zaio. Plan berriak behar ditugu. Esaterako, energiari buruzko epe luzeko estrategia landu behar dugu. Funtsean, gakoa hau litzateke: baliagai berriztaezinen erabilpena murriztu eta energia alternatiboak bultzatu.

Huskeria dirudi, baina-gauzak ez dira hain errazak. Egia da energia alternatiboei bultzada eman zaiela, eolikoari batez ere. Baina ener-

gia mota horren garapena, Estatuan behintzat, eredu zaharretan oinarritu da: inposaketa, espekulazioa, nekazarien manipulazioa, etab.

EAEn horren adibide garbia dugu. Eredu eolikoa ez da oraindik eztabaidatu eta, departamentuz departamentu dabilen aurreplana ikusita, natur guneak zentral eoliken beharretara egokitzen direla ematen du. Harrigarria bada ere, Aizkorriko eremuari zati bat kendu zitzaion Europako Batasunaren aurrean aurkezteko. Kasualitatea bada ere, zati horretan ari dira Elgeako zentrala egiten.

Betiko tranpa da hau: ingurumena eta interes sozialari baino gehiago epe motzeko errentagarritasun ekonomikoari begiratzen zaio. Beraz, energia alternatiboen erabilera ez du askorik aldatuko ohiko praktikak alde batera uzten ez baditugu.

Ingurumen arazo eta krisi larriei aurre egiteko, pentsamolde berri bat hartuko dugula zioen C. Sagan astronomo ospetsuak, gizateriaren interesak nazio, estatu eta enpresen interesen gainetik jarriko dituela. Ikuspuntu hori baikorregia dela esango du askok, inguruan bultzatzen diren politika eta planak ikusita. Baina ukazina da bide berriak aurkitzeko espezie azkarra garelako. Agian, mundu mailako ingurumen krisiak berak eramango gaitu irtenbide zuzena bilatzera. Hala bedi.

\*Naturazalea

“  
Gure bizi mailari eusteko  
Hirugarren Mundua  
pobrezian behar dugu, eta  
hau ezin da jasangarria izan  
”



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Eskaaintza berezia solariumean

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28  
ARRASATE




# Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



**OSTIRALA 14**

Laino asko izango ditugu eta euria egingo du, tarteka. Hegohaizea lehen orduetan; gero ipar-haizea.



**LARUNBATA 15**

Oso lainotua egongo da eguna eta goialdean elurra egingo du. Haize iparraldetik ahul joko du.



**IGANDEA 16**

Lainoak gurean segituko dute eta euria ere egin dezake, tarteka. Haizeak hegoalde-tik joko du.

## hildakoak

- Elisa Garcia Silva, 84 urte. Apirilaren 6an.
- Belisario Alonso Sanchez, 84 urte. Apirilaren 10ean.

## ezkontzak

- Ion Iria Urzelay eta Nerea Oveja Acha, apirilaren 8an.

## jaiotzak

- Paula Marcos Gonzalez, apirilaren 4an.
- Vera Garmendia Dulfova, apirilaren 5ean.
- Ander Garai Etxebarria, apirilaren 5ean.
- Asier Roteta Tena, apirilaren 5ean.
- Ane Arrillaga Echevarria, apirilaren 7an.
- Izaro Uribarren Arkauz, apirilaren 10ean.

## mezak

### San Joan parrokia

#### Larunbata

19:00 (elebiduna)

#### Igandea

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

### San Andres eliza

#### Larunbata

19:00 (elebiduna)

#### Igandea

10:00 (elebiduna)

11:00 (euskaraz)

12:00 (erdaraz)

13:00 (erdaraz)

### San Frantzisko eliza

#### Larunbata

19:00 (elebiduna)

#### Igandea

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (erdaraz)

### Santa Teresa eliza

#### Larunbata

19:00 (elebiduna)

#### Igandea

10:30 (erdaraz)

11:30 San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### Santamañako eliza

#### Jaiegun bezpera eta larunbata

19:00 (erdaraz)

#### Igandea

12:00 (erdaraz)

### Uribarri parrokia

#### Larunbata

19:00 (elebiduna)

#### Igandea

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

## eskertzak eta urteurrenak

Eskelak,  
esker onak  
eta urteurrenak  
jartzeko tartea

Tel.: 943 71 23 91



LEHENENGO URTEURRENA

Floren  
Zubizarreta Arregi


Urtebeteko meza, San Frantzisko elizan  
apirilaren 16an, igandea,  
eguerdiko 12:30etan ospatuko da.



Aurrez esker ona bertaratzen zareten guztioi. Bere familia.

**HIES  
BERRIA**

Tel.: 943 79 26 99



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia



Industrialdea F-0.4  
Telefonoa: 794844  
Faxa: 792941

ARETXABAETA

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 78

# 14

## ostirala

■ ZINEA

*El Hombre Bicentenario*, 19:00 eta 22:00, Alai zineman.

■ ARRASATE MUSIKALEN EMANALDIA

Arrasate Musikalek bere bigarren hiruhilabeteko bukaerako kontzertua eskainiko du. Euren egoitzako areto nagusian, 18:30.

■ ZUZENEKO KONTZERTUA IAMAIN

*The All Breakers* talde zumarratarrek zuzeneko kontzertua eskainiko du Iamain kafetegian. Kontzezino, 14. 22:30.

■ KONTZERTUA GO-JAMEN

*Jon Auer* eta *Skyward*-en kontzertua izango da Bergarako Go-Jam aretoan. Sarre-rak 1.500 pezetan. 22:00.

# 15

## larunbata

■ ZINEA

*El Hombre Bicentenario*, 17:00, eta *Yoyes*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ LORE GAZTEAKEN BAZKARIA

Lore Gazteakeko oraingo eta lehengo kideek bazkaria egingo dute, 14:30, Kataide jatetxean.

■ EUSKAL PRESOEN ALDE BIZIKLETAN

Euskal presoak Euskal Herriratzea eskatzeko bizikleta ibilaldia antolatu du Gazte Ekimena taldeak. Seber Altubetik irtengo da eta herri osoan ibiliko da. 12:30.

■ OÑATIKO ABESBATZA GUREAN

Oñatiko *Ganbara* abesbatzak emanaldia eskainiko du. Parrokian, 20:00etan.

■ DOCTOR DESEO JAMEN

*Doctor Deseo* rock taldeak kontzertua eskainiko du Bergarako Jam aretoan. 22:00.

■ BLACK METAL KONTZERTUA GAZTETXEAN

*Dark Faith* black metal estiloko talde audioarrak kontzertua eskainiko du Gaztetxean. 22:00.

# 16

## igandea

■ ZINEA

*El Hombre Bicentenario*, 17:00, eta *Yoyes*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ DANTZARI EGUNA

Debagoieneko dantzari eguna ospatuko da. 11:30etan hasiko dira kalerik kale dantzan.

■ ELGEAKO ZENTRALAREN AURKA

Elgean zentral eolikoa egitearen aurkako taldeak kale agerraldia antolatu du. Eskoriatzako plazatik irtengo dira, 12:00etan, eta Aretxabaletaraino joango dira.

### Arantzazura!



Donostiako gotzaindegia "Jesukristorekin hobeto" leloarekin ospatzen ari da Jubileu garaia. Azken ospakizuna zapatuan izango da, Arantzazuko Santutegirainoko igoera. Juan Maria Uriarte gotzaina ere hantxe izango da. Arantzazura bidean dagoen Soraluze hoteletik abiatuko da, 9:30etan. Arrasateko Parrokiak autobusak jarriko ditu. Parrokiak parte hartzera animatzen ditu herritarrak.


**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Ferrerias. 943 79 87 62

**• ARTEA •**

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95  
ARRASATE

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56



# 17

## astelehena

# 18

## asteartea

■ **ZINEA**

*Yoyes*, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ **KALE BILKURA**

Amnistiaren Aldeko Batzordeek deitutako kale bilkura izango da. Euskal presoak egiten ari diren gose greba salatu-tuko dute. Herriko plazan, 19:00.

■ **TXEKIAKO MUSIKA**

Txekiako *Sinfonietta* orkestrak eta abesbatzak emana-ldia eskainiko dute Amaia antzokian. 20:00.

■ **ZINEA**

*Yoyes*, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ **KARTELADA**

Astero bezala, ABBk kartelada egingo dute. Seber Altube plazan, 19:00.

■ **HITZALDIA**

Eskola Politeknikoan "Altzairuak etorkizuneko materiala?" izenburuko hitzaldia eskainiko du Jose Mari Rodrighez Ibabek, CEITeko ikertzaileak, Eskola Politeknikoko 6.128. gelan. 19:00

■ **PERKUSIO IKASTAROA ETA KONTZERTUA**

Nick Twinley perkusio joleak ikastaroa emango du Gazteluondoko aretoan. Izen ematea edo argibideak: Iñaki, 943 79 80 25 telefonoan. Gainera, lehen Nick Twinley perkusio taldea deitzen zenak, orain *Dunbakak*, kontzertua eskainiko du Aretxabaletako Gaztetxean, maiatzaren 1ean. 21:30.

■ **KIROLDEGIETAKO EGUTEGIA**

Aste Santua dela eta, hilaren 20tik 24ra bitartean itxita egongo da Iturripe Kiroldegia. 17tik 19ra eta 25etik 28ra, 17:00-21:30 izango da zabalik. Musakolakoa, aldiz, goizez bakarrik izango da zabalik, 20tik 24ra.

■ **AUTODEFENTSA IKASTAROA**

Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa eskaintzen du Arrasateko Wing Tsun taldeak. Beti Ona gimnasioan izango dira eskolak, maiatzaren 6tik 27ra, larunbatero, 10:00-12:30. Izena emateko edo argibideetarako: 610 90 26 30 edo 943 77 00 67 telefonoetara deitu.

■ **ERAKUSKETA TOKI-EDERREN**

Apirilean, Diana de Orbe margolari barakaldarraren erakusketa izango da San Andreseko Toki-Eder kafetegian. Bañez Dokto-rean, 11.

## Doke partidak

Hainbat urte daramatza SUDC elkarteak doke partidak antolatzen, eta aurreneko ez digu kale egin. Bi alditan jokatuko dira partidok: domeka honetan, hilaren 16an, gazteen txanda izango da, eta Eguakitz Santuan, hilaren 21ean, aldiz, nagusia.



Udaleko langileekin ere izango da norgehiagoka bat, eta horretan irabazten duenak eramango ditu trofeoa, txapela eta, nola ez, tradizioak agintzen dituen 40 bat kilo arrain. Monterron ondoko zelaian izango dira txapelketak, gazteena 12:00ak aldera eta helduena 10:30etan.

## astea bi hitzetan

### ■ Eroski-ikastolak

Eroski kooperatibak eta Euskal Herriko Ikastolen Federazioak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten pasa den ostegunean. Hitzarmenaren arabera, Eroskik 10 milioi pezeta emango dizkio Ikastolen Federazioari urtero antolatzen dituen festetarako.

### ■ ISO 14.001 JMARI

JMA enpresak ingurumenaren ISO 14.001 saria jaso du hondakin gutxiago sortuz produzitzeagatik. 1997az geroztik, produkzio garbiko politikarekin lan egiten dute

enpresa horretan. Ezarritako neurriekin, hondakinak gutxitzeaz gain, aurreztea ere lortzen da: olio biziklatu egiten delako eta nikel makinan, ur gutxiago erabiltzen delako.

### ■ Giroaren kalitate azterketa

Ingurune SL enpresari adjudikatu zaizkio Mondragoeko giroaren kalitatea aztertzeko laguntza teknikoak egiteko lanak. Sei hilabete eta ia bi milioi pezeta ditu horretarako.

Lan hori egin ondoren, Mondragoeko giroaren kalitea hobetzeko proiektua egingo da. Europatik datorren Agenda 21ean oinarrituta, Tokian Tokiko Agenda 21 plangintza egingo da, Mondragoeko egoeraren arabera, herriko ingurumena babestuz etenik bariko garapena lortzeko erdua, azken batean.

■ Zorionaren bila  
Almen Ikastolan, gurasoen formakuntzako plangintza berruan, zoriona lortzeko hainbat aholku eman zituen La Laguna unibertsitateko Pedro Hernandez katedradunak.

### ■ Euskara ofiziala


Debagoieneko ikasle askok euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko greba egin zuen pasa den ostegunean. Eguerdian Mondragoen bildu ziren kale agerraldian: Oñatiko eskolako, Institutuko eta ETEOko ikasleak, Aretxabaletako Institututik etorritakoak eta Eskoriatzako Irakasle Eskola eta Almen ikastetxeakoak. Mondragoerri dagokionez, San Viatorako, Institutuko eta Eskola Politeknikoko ikasleak atera ziren protesta egitera. Ikasle Abertzaleak taldeak egin zuen grebarako deia.



“Harrigarriena zera egin zitzaidan hasieran: ikusle guztiek piska bat haiena zarela pentsatzen dute, familiakoa bazina bezala. Niri merkatuan topatzen ditudan etxeoandreek aholkuak ematen dizkirate, «ilea atzo zenuen moduan asko gustatzen zait, gehiagotan jarri beharko zenuke» eta horrelakoak esaten dizkirate eta gizonetzkoek ere, taxistek edo barmanek, antzera, konfiantza handiz hitz egiten didate, etxeokoa banintza bezala. Hori izan da deskubritu dudana.

### ANNE IGARTIBURU

Gara  
(2000.4.9)



# JUBAR®

ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17  
110 Postakutxa • ARRASATE

- Garageko atek •
- Burdinazko pertsianak •
- Automatismok •
- Urrutiko agente tresnak •
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak •
- Konponketak •



# Bolsa Garantizado XIV Fondoa

## Inberti ezazu segurtasunez burtsa-merkatuan

## Bolsa Garantizado XIV Fondoa

### 14. jaulkipena

**Ezaugarriak:**

**Epea:** 3 urte.

**Bermea:** gutxienez harpideturiko kapitala itzultzea.

**Errentagarritasuna:**

- Erreferentzi indizearen balio-handitzearen %85.
- Nikkei baloreak urtekoaren edozein unetan hazkundearen %25 gainditzen badu, urte horretan 53,40ko errentagarritasun finkoa aplikatuko da automatikoki.
- Balio-handitzea lineala da, hau da, urtero neurtzen da abiapuntutik azkenera arte.
- Lortutako errentagarritasuna hasierako kapitalari aplikatzen zaio. Errentagarritasun hori urtean finkatutako balio-handitzeak batuta ateratzen da.

**Finkapen-egunak:** 2001-5-31, 2002-5-31 eta 2003-5-28.

**Bermearen mugaeguna:** 2003-5-30.

**Fiskalitatea:** sortutako errendimenduak ondare-irabazitzat hartzen dira.

**Hasiera-data:** 2000-4-10.

**Harpidetzeko epea:** 2000-5-31ko 14:00ak arte.

Inbertsio honen bidez, Euskadiko Kutxak errentagarritasuna, segurtasuna eta fiskalitatea konbinatzeko formula ideala proposatzen dizu. Orain, gainera, jaulkipen honek berritasun garrantzitsuak ditu: epea 3 urtera murriztea, mozkinak urtero finkatzea -hots, lortutako mozkina arriskatu gabe- eta balio-handitzea %85eraino igotzea, esaterako.

# Ikasleak presoan aldeko baraualdian

Mondragon Unibertsitateko 33 ikaslek aste guztian zehar baraualdia egin dute Eskola Politeknikoan. Gauak ere han ematen dituzte. Euskal presoak egiten ari diren gose grebarekin bat egitea izan da helburua, eta baita presoan eskubideak aldarrikatzea ere.

## EKITALDI UGARI

Baraualdia egiteaz gain, bestelako ekimenak ere egin dituzte. Karteladak edo kale bilkurak egunero, Mondragon Unibertsitateko beste fakultateetara bisitak eta presoek buruzko hitzaldiak, besteak beste. Udal ordezkarien bisita ere izan dute:



Presoen eskubideak aldarrikatu dira Eskola Politeknikoan.

EH, EA eta Ezker Batuko zinegotziena. Baraualdia gaur amaitu dute, Mondragoen kale

agerraldia eginez. Indarrak berreskuratzen hasteko, salda hartu dute udaletxean.

## EUDIMA, legez kanpokoa

Euskal Herriko Auzitegi Gorenak adierazi du EUDIMA legez kanpokoa dela Intsumisioa aldarrikatzen duelako.

EUDIMAKo udalak Estatuaren eskuduntzetan sartu direla uste du Auzitegi Gorenak. "Nazioaren Defentsa Estatuaren eskuduntza delako". Arrasateko Udala EUDIMAKo kide da eta hala xe segituko du. Xabier Zubizarretaren ustez, zilegi da Espainiako Armadaren eta Espainiaren batasunaren aurrean intsumiso izatea. Orain, EUDIMAREN erabakia ikusi behar, larunbatean bile-ra egingo da eta.

## Makatzenako auzokideak haserre udalarekin

Makatzena auzoko bizilagunak haserre jarri ditu udalaren erabaki batek. Makatzenako etxebizitzaren arkupeak dira eztabaidaren karkoa.

Izan ere, Makatzenako arkupeak egoera negargarrian daude. Denborak eta hezetasunak kalte handia egin dute, eta istripuak ere izan dira. Eta badira hiru urte hango bizilagunak konponbide bila ari direla. Sasoi hartan, Matilde Martin zen auzo alkatea, eta arkupeen jabegoa bere gain hartzea eskatu zion udalari, bizilagunen adostasunarekin. Udalak konponketak egin eta aurrerantzean arkupeak bere ardurapean hartzea zen asmoa.

## GAUZAK IGOAL

Baina hiru urteren ondoren ez da inongo aldaketarik izan. Berriro eskatu zaio udalari arkupeen jabegoa hartzeko. Hala ere, bi familia ez daude

ados, eta udalak aho bateko adostasuna eskatu du.

Gauzak horrela, gobernu batzordeak ondoko erabakia plazaratu du: hilabete batean ados jartzen ez badira, isuna ipiniko die. Gainera, konponketak egingo ditu baina bizilagunei kobratuz.

## ADOSTASUNA HELBURU

Matilde Martinek bultzatu zuen udalarekiko hitzarmena. Berak esan digunez, ulatimatum horren helburua bizilagunen adostasuna lortzea da. Baina bizilagunek ez omen dute horrela ikusten.

Martinen esanetan, auziaren hasieran udalak 11 milioi gorde zituen konponketak egiteko, baina partida hori kentzeko asmoa izan zuen. Hori dela eta, Makatzenako herritarrek auzokideen eta udalaren arteko irtenbide adostua eskatzen dute.

## Inaugurazioa Matz-Errekan



Inaugurazioko zinta Roman Sudupe diputatuak moztu zuen.


Antzuolako Matz-Erreka kooperatibak pabilioi berria inauguratu zuen asteazkenean. 1.550 m<sup>2</sup>ko eraikina da eta automatismo sistemak egingo dira, hau da, pertsonak eta atek ixteko sistema automatikoak.

Inaugurazio ekitaldian Mikel Agirrezabal, Matz-Erreka gerentea eta Pello Andrinua Automatismoetako zuzendariarekin batera, Antonio Cancelo ere izan

zen. Izan ere, Matz-Erreka MCCren barruan dago.

Agintari politikoak ere izan ziren: Mireia Unamuno Antzuolako alkatea, Roman Sudupe Diputatu Nagusia eta Josu Jon Imaz industria sailburua.

Matz-Errekako automatismoen jarduerak 1.400 milioiko fakturazioa izan zuen iaz eta gaur egun 50 langile ari dira lanean. Enpresa guztian 250 ari dira.



**weru®**

**weru®**

Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
 BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
 Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
 ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta  
 leihoez gain:  
 moketak,  
 zoru arinak,  
 kortxoa,  
 Louverdrape  
 kortinak,  
 Kortinoba, testila...

# Perkusio ikastaroa

## Tradizioa eta bat-batekotasuna



Nick Twilleyk zuzendua.  
 Gazteluondoko aretoan.

- **Hasierako maila:**  
 Apirilaren 27, 28 eta 29an,  
 18:00etatik 20:30ak arte.  
 Prezioa: 4.000 pta.
- **Sakontze maila:**  
 Apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean.  
 Goizez: 11:00etatik 14:00ak arte.  
 Arratsaldez: 17:00etatik 20:30ak arte.  
 Prezioa: 8.000 pta.



Laguntzailea: **Gazteria Saila** ■ ARRASATEKO UDALA

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, dei egin  
 943 79 80 25 telefonora eta Inakirengatik galdetu.

# Harrobiak mugak gainditzen

Herriko harrobiak zela dauden jakiteko azterketa egin du udalak. Kanpanzar eta San Josepe harrobiak aztertu dira; izan ere, harrobiei egiten zaien jarraipenean ikusi zenez, harrobien esplotazioan jarritako mugak gainditzekotan zebiltzan.

Eta halaxe izan da. Udalak egindako txostenean ikusi da batak zein besteak gainditu egin dutela ezarritako lan esparrua.

## KANPANZAR

Kanpanzarko harrobiari dagokionez, 1993. urtean harrobiaren lana legeztatu zenean ezarritako muga gainditu egin du, altueran. Ondorioz, espediente irekiko zaio egindakoaren erantzukizuna zehazteko.

Horrez gain, harrobiak lan batzuk egiteko leherketa baten berri eman du. Dirudienez, lan horiek ere gainditu egiten dute



San Josepe harrobiak 2004. urtera arte du esplotazio baimena.

1993. urtean ezarritako esparrua. Hori ikusita, leherketa-

rik ez egiteko ohartarazi dio udalak harrobiari.

## Lan istripua

Astlehenean lan istripua izan zen San Josepe harrobian. Langile bat zama jasotzeko pala batean ari zen lanean. Amaitu zuenean, maniobra egin nahi izan zuen, baina makinak erantzun ez eta

azpian harrapatu zuen. Ordu eta erdi pasatxo egon zen aterra ezinda. Jakin dugunez, hezuraren muina ondo dauka, beraz, egun batzuk ospitalean eman ondoren, etxera bidaliko dute.

Bestalde, Udaltxera igotzeko antzinako bide bat tapatu egin da harrobiaren lanen ondorioz. Hori berreskuratu egin behar duela ere jakinarazi dio udalak Kanpanzar harrobiari. 2015. urtean utzi beharko dio esplotazioari harrobi honek eta ondoren berreskuratzeko lanei ekingo zaie.

San Josepe harrobiari dagokionez, berriz, harrobira bertara heltzeko bideak muge-tatik kanpo egin direla ikusi du udalak, inguruko lurzolutan aldaketa dezente eraginez.


Harrobia berreskuratzeko lanak egitean, inguru hori ere berreskuratu egin beharko dutela erabaki du udalak.

San Josepe harrobiari 4 urteko lan epea geratzen zaio eta ondoren, ingurua berreskuratzeko lanak egin beharko ditu.

## Heziketa Zikloak ezagutzuz

Hauxe da Arizmendi Kooperatibak eta Mondragon Unibertsitateak Lanbide Heziketaren gainean atera duten gida liburua. Gaur egungo Heziketa Zikloei buruzko informazio zuzena ematea da helburua. Horretarako, lehenik eta behin perfil motak aurkeztu dituzte liburua, ikasleak bertan identifikatu daitezke. Era berean, titulazio bakoitzak dituen ikasgaiak eta lan munduan duen aukera ere azaltzen da, besteak beste.

Izan ere, ikasle guztiak lanera bideratzea da Lanbide Heziketaren helburu nagusia. Era berean, unibertsitatearen alternatiba izatea ere badu helburu, eta ez bigarren maila-



Asteartean aurkeztu zen liburua.

ko heziketa izatea. Gida liburua-ruaren aurkezpenean Almen Ikastola, ETEO, Mondragon Eskola Politeknikoa eta San Viator ikastolako ordezkariak izan ziren.

## Telefoniako antenak ez dira kaltegarriak

Eusko Jaurlaritzak Santamania hogeita laugarren atariko auzokideei Telefoniako antenak ez direla kaltegarriak jakinarazi die. Izan ere, etxe ondoko mota honetako antena bat jartzeko eskaeraren aurrean, kaltegarriak izan daitezkeen susmoa hartu zuten bizilagunek.

Hori dela eta, antena jartzeko baimena eman arren, informazioa eskatu zioten Jaurlaritzari.

### EZ DAGO FROGATUTA

Osasunaren Mundu Erakundeak egindako txosten batean oinarritu da Eusko Jaurlaritzak hartu duen erabakia herritarren

susmoak baretzeko.

Txostenean adierazten denez, zientziaren ikuspegitik ez dagoela demostratuta antena horiek eragin kaltegarriak dutenik inguruan bizi den jendearengan.

### HARTZEKO NEURRIAK

Era berean, bost neurri proposatzen dizkie herri agintari: nazioarteko arauak zorrotz betetzea, antenak-eta ondo babestea, tokian tokiko agintarien eta herritarren iritzirik kontuan hartzea eta, azkenik, osasunari dagokion informazio sistema eraginkorra antolatzea, oinarrikerik gabeko beldurrak uxatzeko.

## NAHI BESTE AUTO



Bigarren eskuko autoen erakusketa egin zen joan den asteburuan Arruena parkean. Debagoieneko auto saltokiek antolatuta, nahi beste auto izan zen ikusgai. Eta sortu zuten ikusmirarik jendearengan. Eta bat baino gehiago oinez joan eta autoan itzuli zen etxera.

## PLAENTXIARRAK BISITAN



Estralurtarren inbasioa ez, baina plaentxiako 34 bat neska-mutikorena izan

genuen ostegun goizean. Herri ikastetxeko bigarren mailako ikasleak ziren, eta

gure astekari eta telebista-ko zirrikitu guztiak arakatu zituzten.



# GRONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

## TXUPI ITZIARREKIN!



Haur liburuaren eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituen Arrasateko Udal Liburutegiak. Astelehenean eta ostiralean Itziar Zubizarreta donostiarrak ipuin bat kontatu zien Arrasateko 5 eta 6 urteko haurrei. Ezagun da gustura daudela, ezta?

Erguin herri eskolan ere ez dira lo egoten eta antzerki jardunaldiak egin dituzte. Astelehenean "Hamelingo txistularia" eta "Ahate itsusia" antzezlanez gain, txikienen kantak ere entzun ahal izan ziren. Paregabe-ko artistak direla argi utzi zuten, gurasoak txaloka izan baitziren, eskuak urratu beharrean.



## AKTORE BOKAZIOA

## LITERATURA, LIBURUETATIK MUNDURA

KURTZEBARRI  
ESKOLA



Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan literatura astea egin zuten joan den astean. Antzerki bideo emanaldiak, jokoak, irakurketa maratonia... denetik izan dute. Asteazkenean Pello Añorga ipuin kontalaria izan zuten kontu kontari, liburuak esku artean hartuta. Aurrez-aurrez, berriz, urte eta sasoi batean ume izandako ugari, adurra dariola.

## ASTEBURU BETE-BETEA



Argentinako Cordobako unibertsitateko abesbatza Arrasaten izan dugu asteburuan, Goikobaluk gonbidatuta. Egonaldi laburra baina bizia izan zuten: bazkaria, emanaldia Amaian... Argazkian, udalaren harrera agertzen da. Ondoren, gure ohitura-rik errotuenetako bat ezagutu zuten: txikiteoa.





*Zure etreko  
txokoak maite  
dituzulako*



Uribarri etorbidea, 22 - B • Tel. / faxa: 943 79 81 80  
ARRASATE

## IKASTAROAK ATZERRIAN *Uda honetan*

IRLANDA - INGALATERRA - EE.BB.

*ingelese*

*frantse*

*alemana*

FRANTZIA - ALEMANIA - KANADA

CIMek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.

- Ekintza turistikoa eta ludikoekin
- Eta CIMek beti eskaintzen dizun bermearekin

haur, gazte eta helduentzako



Florida, 8 A  
Tel.: 945 15 01 55  
Vitoria - Gasteiz  
Avda. Alava, 4  
Tel.: 943 71 20 55  
Arrasate - Mondragón

Olakua, 14  
Tel.: 943 71 60 00  
Oñati  
Zubieta, 26  
Tel.: 943 43 31 02  
Donostia - San Sebastián



# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ..... ☎ 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ..... ☎ 943 77 05 57

## DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22-1. .... ☎ 943 79 72 16

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LÓPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Análisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan), Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 943 79 20 18

## PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16

## TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22

# “Altamirako” jaiak asteburuan

**Jose Luis Iñarra Pasealekua (“Altamira auzoa” moduan ezagutzen dena) kolorez eta musikaz jantziko da asteburuan, hango bizilagunek zapatuan kaleko jaiak ospatuko dituztelako.**

Orain 15 bat urte ospatu ziren lehenengo aldiz kale horretako jaiak. Ohikoa den moduan, santu baten izena ipini beharrean, kaleari izena eman zion mondragoetararekin oroitzea egokiagoa iruditu zitzaizen bizilagunei. On Jose Luis Iñarra apirilean hil zela jakinda, hilabete hori aukeratu zen jaia egiteko. Era berean, Aste Santua kontuan hartuta eta San Andres auzoko jaiak hilaren bukaeran izaten direnez, tarteko egunen batean ospatzea erabaki zen, eta halaxe egiten da.

## IZEN NAHASIA

Herritar askok kaleari Altamira izena ematen dio. Auzoa dela uste du, gainera. Eli Alzola auzokideak argitu digu zer dela eta gertatzen den hori: “Altamira baserria badago gure kalean eta hortik gertatu zaio izena. Auzo izatea, berriz, asmatutako zerbait da. Gure kalearen izena On Jose Luis Iñarra Parrokoaren Pasealekua da. Kaja Laboraleko edo Azatzako etxeak izenez ezagutzen diren etatik hasi eta San Kristobal hilerrirako bide-

an dauden etxebizitzetaraino doana”.

1977. urtean inauguratu ziren eraikitako aurreneko etxebizitzak. Orain, 165 bizilagun ditu.

Auzokideek Auzo Batzordea dute, auzoaren nolabaiteko kontrola egiteko. Modu formalean erabakia dago, gainera, batzordea: presidentea, idazkaria, bokala... etab. Bi urtetik behin aldatzen dira karguak.

Batzorde arduratzen da jaiak antolatzeaz ere.

## ZER DAGO AUKERAN?

“Orain 20 urte inguru Arrasateko Institutua eta Ume-zaintza hementxe zeuden, La Mercedekin batera. Oso pozgarria izaten zen behetako plazan ume txikien zarata eta barreak entzutea. Orain ez dago horrelakorik, sekulako lasaitasuna baizik. Eta hori eskertzekoa da oso.

Horrez gain, eguzkiak egun osoan jotzen du gure kalean. Aloña eta Kurtzebarri mendiak ikus daitezke hemendik.

## KEXAK

Hala ere, arazoak ere badaude Jose Luis Iñarra Pasealekuan: “Herriko garbitasuna egiten dutenak, ahaztu egiten dira gurekin. Bestalde, orain urte batzuk, Uarkapeko etxeak egitean izan zen,



Altamira baseritik hartzen du izena Jose Luis Iñarra Pasealekuak.

lur-jausiaren ondoren, oraindik ere ondorioak konpondu ezinda gabiltza. Etxeak mugitu egin ziren, eta baita auzoko beste gune batzuk ere. Auzoko Batzordeak gainean egon behar du konponketak egiteko”.

Kalearen zaintza dezen-

teagoa ere hartuko lukete bizilagunek: “Txoko ezkutu ugari dugu eta horrek beti erakarri izan du jendea, askorentzat gustukoa izaten ez den jendea”. Era berean, herri osoan gertatzen den moduan, aparkalekuak ere falta dira On Jose Luis Iñarran.

## EGITARAUA:

- 10:30:** etxalero botatzea.
- 13:00:** taberna zabalduko da auzoko plazan.
- 16:30:** etxalero botatzea eta haurrentzako marrazki lehiaketa.
- 18:00:** txokolatada plazan.
- 18:30:** dantzariak eta auzoko nagusiei omenaldia.
- 19:00:** meza San Frantzisko parrokian.
- 19:15:** kilikiak.

Gaueko 22:00etatik aurrera “Txinparta” taldeak girotutako dantza saioa izango da.

Kaleko bizilagunek jaietara agertzeko deialdi berezia egin nahi izan dute. Giro ona izango dela eta, Mondragoeko jendea hara joatera animatu nahi dute. Beraz, hortxe dago gonbita!!!



# Danona

KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

# PUB HAIZEA



# Dantzarako aukera gehiago

Domeka honetan, Debagoieneko dantzari eguna ospatuko da. Orain zazpi urte abiarazi zen jai hori lehenengo aldiz. Arrasate izan zen jai horri ostatu eman zion lehenengo herria. Antzuola, Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara, Plazentzia eta Oñatitik pasa ondoren, berriro Mondragoera dator ospakizuna. Epe horretan, Aretxabaleta eta Eskoriatzako dantza taldeak desagertu egin dira, baina Aretxabaletan talde bat sortzeko asmotan dabilta. Ez da eragozpen bakarra, Mondragoeko Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeetakoek azaldu diguten legez. Zer ari da gertatzen euskal dantzekin?

**D**ebagoieneko dantza taldeek batera hartu zuten Dantzari Eguna abiarazteko erabakia. Ez zen kapritxo kontua izan. "Urte hartan desagertu berri zen Elgetako taldea, eta beldurra genukan besteok ere arrisku berean ote geunden. Hori dela eta, taldeetako zuzendariak horrelako egun bat sortzea erabaki zuten". Hori xe dioskue Arrostitzeko dantzari eta txistulariek orduko ikuspuntua azaltzeko.

Dantzari Egunarekin, zaletasuna sustatzeaz gain, dantzari eta txistulariei urte osoan egindako lan gogorraren ordaina ematen zitzaion. Horren eske ere bazeuden taldeetako kideak: "Horrenbeste entsegu egin ondoren, jendaurrean agertzeko behar beste aukera gabe

aurkitzen ginen, eta Dantzari Egunarekin aukera horren bila genbiltzan", diote aho batez Arrostitz eta Lore Gazteak taldeetako kideak.

## JENDE GUTXI

Ardura eta desilusio apur bat azaltzen dute euskal dantza taldeen gaur egungo egoeraz galdetzen zaienean. Izan ere, egunero-egunero egiten duten lan isilak ez omen du jendearengandik eta erakundeengandik pareko erantzunik: "Jendea ez da etortzen euskal dantzak ikustera eta badirudi galtzen ari direla. Bailara honetan, gainera, ez daude beste batzuetan bezain zabalduek", diote dantzariak. Bereizkeria apur bat ere sumatzen dute jarrerara horretan: "Kanpotik etortzen da ez dakit zein talde eta horiek ikusi eta entzuen



Txakarrankua jai guztietan egiten da.

tera jende mordoia joaten da. Eta euskal dantza saioa dagoenean, gure familiakoak besterik ez", kexatzen da Jokin Laspiur Lore Gazteak taldeko dantzaria. Horrelako kexuak larregikoak direla ere pentsa genezake, jaietan biltzen den jendetza gogoratzen badugu. Salbuespena ote? Dantzariak esaten digutenez, zoritxarrez hala da: "El Caserio zartzuela taularatu zenean, Amaia antzokia goraino bete zen. Hor guk egiten genuen dantza, baina nire ustez zarzuelagatik etorri zen jendea, eta ez horrenbeste dantzak ikustegatik", diote dantzariak.

Gainbehera hori ez da Arrasatekoa bakarrik. Antzuolako Miren Karmele Iparragirrenen ustez, "Debagoiena osoko kontua da. Plazan dantza egiten dugunean, izaten dira jende multzoak, bai

na kalean gabiltzanean nahiko triste egoten da giroa". Zergatiak? "Jendeak entretenimendurako aukera gehiago du orain. Eguraldi onarekin, akaso futbolera edo Urkulura joatea nahiago izaten dute", diote Miren Karmelek eta Arrostitzeko zuzendariak, Marga Mercaderrek. Umeak taldeetan sartzeko ere gaizki ibiltzen omen dira: eskola kirola ez duenak ingelesa edo beste zerbaitekin.

## EUREN SAKELETIK

Publikoak erantzun kaskarra ematen badu, erakundeena ere ez da askoz hobea, taldeon ustetan. Eta horrek ere ez du asko laguntzen. Izan ere, euskal dantza taldeek udalaren diru laguntzei esker bizi dira gehienbat. Baina mugitzen den jendea eta egiten den lana kontuan hartuz, dirulaguntzak



Bailarako dantza taldeetako neskek, emanaldian.

**"Jendeak entretenimendurako aukera gehiago du orain. Eguraldi onarekin, akaso futbolera edo Urkulura joatea nahiago izaten dute"**

# ngoren bila

barregarriak dira. Aurtengo aurrekontua: 400.000 pezeta inguru Arrasateko bi dantza taldeentzat. Otorala kalean dagoen lokal bat ere uzten zaie, entseguetarako, baina ez da errentzat bakarrik: helduentzako hainbat ikastaro izaten dira eta haur dantzariak ere hantxe egiten dituzte entseguak. Bildu izan dira 400 lagun 220 bat metro karratuko lokalean.

Zaletasuna eta borondatea onak dira, baina azkenean, diruak agintzen du noraino hel daitezkeen. Dantzari Egunean 150 bat dantzari eta musikari bilduko dira, laguntzailerak zenbatu barik. Emanaldiak eskaini behar dira, arropa egokiak eduki, denentzat bazkaria prestatu... Zoritxarrez, orain zortzi urteko egoera beretsua errepikatuko da aurtengo: "1993an bakoitzak bere autoz mugitu behar izan zuen. Bazkaria ere gure sakeletik ordaindu behar izaten dugu normalean", diote dantzariak.

Amets egitea doan da, eta

dantzari eta txistulari hauek hiruzpalau milioko diru laguntzarekin egin litekeena azaltzen digute. Han eta hemen emanaldiak eskaini, arropa berriak erosi, lokal egokiagoak eskuratu, garraioa eta bazkariarena konpondu... Gezurra badirudi ere, sormenari diruak jartzen dizkio mugak: "Gustatuko litzaiguke Errementari edo Txerri dantza bezalako gehiago asmatzea, eta proposatu genien konpositoreei. Baina aurrekontua oso altua zen guretzat", aitoritzen dute. Beraz, oraingoz ez dirudi dantza berririk ikusi ahal izango dugunik.

## BIZIMODU KONTUA

Panorama honekin ospatuko da aurtengo Dantzari Eguna. Tira, baina okerrago ere izan zitekeen. Bai Lore Gazteak, bai Txikitxu, Arrostitz, Euskal Dantzarien Biltzarraren kide dira. Horrek hainbat abantaila du. Emanaldietan apurketaren bat edo egoten bada, dantzari eta txistulariak babes-tuta daude; ikastaroak egite-

ko aukera ere badute. Gainera, Arrasateko txistulariak dantza taldeetako kide badira ere, talde propioa sortzeko asmoa dute, nortasun sendoagoa izateko. Elkarketa juridikoa beste maila batzuetara eramatea ere ondo ikusiko lukete mondragoetarrek: Debagoieneko dantzari eta txistulari talde bat osatu; urtero herri guztietara joan, umeek egiten duten moduan; beharbada, bailararako dantza bereziak asmatu...

Baina erronka horiekin pentsatzen hasteko, lehenik aldaketa izan behar da. Oraingo egoerari buelta eman behar zaio, baina nola? Mondragoeko taldeen zuzendariak, Marga Mercaderrek eta Xeli Arregik, kontzientziario eta ohi-tura kontua dela diote. Xelik honela diosku: "Nola erakarri jende gehiago? Bizimodua aldatuta. Ez publizitateak, ez eta diru gehiagok ere ez dute jendearen pentsamoldea aldatuko".

Leire Kortabarria



## DANTZARI EGUNA 2000

**Ondoko taldeek hartuko dute parte: Arrasateko Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeek, Arrasateko Txistulariek eta Arrasateko Gaiteroek; Antzuolako Oinarinek, Bergarako Xamatzek eta Oñatiko Oñatzek. Egitaraua ondokoa da:**

<b>10:00</b>	Talde guztiak frontoian bilduko dira.	<b>18:00</b>	Arratsaldeko alardea -San Joan -Gorulari -Gipuzkoako arku dantza -Larrain dantza -Arin-arina eta fandangoa
<b>11:30-12:25</b>	Talde bakoitzak bere aldetik bi emanaldi eskainiko ditu.	<b>19:30</b>	Dantzaaldia Txinparta taldearekin.
<b>12:30</b>	Alardea herriko plazan -Agurra -Bizkaiko makil dantza -Zinta dantza -Arabako popurria -Arin-arina eta fandangoa		

## HILARIO ARANSAEZ (ASEGARCEKO ARTEKARIA)

# “Asko hobetu da giroa”

**Sortzez Errioxarra da Hilario Aransaez, baina Arrasaten bizi da azken 40 urteotan. Azken 30 urteotan artekari dabil, Asegarce enpresan. Pilotari ere izana da, eta pilotalekuetako giroa asko gus-tatzen zitzaiolako erabaki zuen artekari lanetan hastea.**

**— Aldatu da zerbaitetan frontoiko giroa?**

— Bai, aldatu da eta horretan asko lagundu du telebis-tak. Pilotalekuetako giroa askoz txarrago ere egon izan da. Orain, aldiz, asko hobetu da. Apustuetan ere izan du era-ginik telebistak. Gaur egun apustulari askok telebistaz ikusten du pilota partida, eta sakeleko telefonora deituz egi-ten ditu apustuak. Askok dis-krezio handiz egin nahi izaten du apustua, eta horiek nahiago izaten dute arteka-riaren sakeleko telefonora dei-tu. Gauza bera gertatzen da arrazoi bategatik edo bestea-

gatik pilotalekura joan ezin dutenekin. Horiek ere telefo-noz egiten dituzte apustuak.

**— Zela hasi zinen arte-kari lanetan?**

— Aurrez pilotan jokatu nuen, eta pilotalekuetako giroa ezagutzen nuen. Oso gustuko nuen, gainera, eta horregatik erabaki nuen artekari has-tea. Jeneralean hiru bat pilo-talekutan izaten naiz astean. Iruñean, Tolosan eta Berga-ran batez ere.

**— Zer egin behar da apus-tua egiteko?**

— Keinu bidez egiten dira apustuak gehienetan, pilota-lekuan elkartzen den jendeak elkar ezagutzen baitu. Gaine-ra, diskrezioa zaindu nahi izaten dute guztiak.

**— Zein keinu era-biltzen duzue apustulari eta artekariok?**


— Gorria masaile-

ra eskua eramanda adierazten da, eta eskua beste besora era-manda, berriz, urdina. Ondo-ren atzamarrekin adierazten da bakoitzak jokatu nahi duen kopurua. Atzamar bat altxa-tuta mila pezeta jokatuko ditu-zu, bost altxatuta bost mila... Atzama-rrekin borobil bat eginda, berriz, h a m a r . Borobil bera bi aldiz egin-da, hogei. Apustulariek artekarioi deitzen

digute telefonoz, eta aurreko eserlekuetarako sarrerak har-tzea eskatzen digute. Nahiago izaten dute aurrean eseri. Gai-nera, partida ikustera doan jen-deak hobe du piska bat atze-rago eseri, bestela traba egi-ten diegu eta.

**— Zenbat arte-kari aritzen zarete partida bakoitze-an?**

— Partidatik partidara alde izatzen da. Arrasateko estreinaldian, adibidez, bost izan ginen, baina hiru-ekin



**“Ezagutzen ez dugun pertsonari ez diogu diru asko jokatzen uzten; mila duro, gehien jota”**

# pilotalekuetan”

ere nahikoa izaten da. Dena dela, jeneralean zazpi bat aritzen gara. Finaletan eta finalerdietan, berriz, gehiago. Eskuz binakako txapelketako finalean, Unanue eta Errastik Titin eta Lasaren aurka Gasteizen jokatu zutenean, hamalau izan ginen. Pilotaleku luzea da Gasteizkoa, eta gainera egun horietan mugimendu handia izaten da, pilotazale guztiak hantxe elkartzen dira eta: Errioxarrak, Arabarrak, Nafarrak... Finalak ez dira ohiko partidak izaten.

— Non dago pilotazale

**gehiago?**

— Errioxan, dudarik gabe. Baina errioxarrek diru gutxiago jokatzen dute.

— **Arrasaten zelako giroa nabaritu duzu?**

— Oso giro polita. Jendea pilotalekuaren gose zen, eta horrelako zerbaiten beharra zegoen, nahiz eta pilotalekua ez duten oso ongi egin. Erailkin bezala oso polita da, baina ez da erraza bertara iristea. Beherago egin behar zuten. Tabernak ere behean behar zuten, jendea egunero joango zen horrela eta.

— **Inork zor dizu dirurik?**

— Jendeak ez du dirua zorretan uzten. Pilotalekuetara joaten diren pertsonak oso zintzoak dira. Lehenago zordun gehiago izaten zen, due-la hogeita hamar urtetik due-la hogeitaz arte, esate baterako. Gainera pilotalekuetan izaten garen guztiok elkar ezagutzen dugu.

— **Sakeleko telefonoaren bidez edonork egin lezake apustua?**

— Nire telefono zenbakia ez diot edonori ematen. Ezagutzen ez dugun pertsonari,

gainera, ez diogu diru asko jokatzen uzten. Mila duro, gehien jota. Horregatik batzuek partida hasi aurretik dirua ematen didate, konfiantzazkoak direla ikus dezadan. Diru trukeak, berriz, partida bukatu ondoren edo hurrengo pilota partidaren egiten ditugu.

— **Inoiz ezagutu duzun apusturik handiena?**

— Milioi erdikoa edo. Orain noizean behin egiten dira horrelakoak, telefonoz gehienetan, baina finaletan bakarrik. Lehenago ez zen orain beste diru jokatzen. ■



**Hilak 14an  
zabalik,  
arratsaldeko 19:00etan**

- Osasuna eta egoera fisiko egokia mantentzeko toki aproposa.
  - *Elikadura biologikoa: Barazkiak, ardoa, frutak, ...*
  - Osasuna berreskuratzekeko produktu fitoterapeutikoak
  - Sendagile naturista, iridiologoa (6166 K. zenb.)
  - Medikuntza Tibetarra (Sewan Dabul, sendagile tibetarrarekin)
  - Kirolarientzako entrenamendu pertsonalizatuak
  - Infragorridun sauna terapeutikoa (lunbagoa, ziatika, artrosia, etab.)
  - Shiatsu masaje japoniarra (digitopuntura)
- ... eta argaltzeko metodorik aurreratuenak (**Tecniline obeactive**), Jaione Yeregi dietistarekin.

Zarugalde kalea, 8 • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 79 56 38

3.000.000 ibilgailu baino  
gehiago aseguratuta,  
lasai-lasai errepidean

**Problemarikgabe**

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa zune

**MAPFRE** Lehenengoak auto aseguruetan

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22 • Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04

**eta zu biluzik?**

Ederra janzkia

**Merkatuko marka onenak zure esku !!!**

Ederra soinekoa

**zatoz**

**MULTIOPTICAS** -era  
eta aukeratu zure janzkera !!!

**Scooter 1**  
DENDA BAKOITZEKO

**Zozketa**

5.000 PZTAKO EROSKETA BAKOITZEKO TXARTEL BAT

R.P.S. 16499 z.a.

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE  
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA



# Udan, udalekuetara Nafarroara



**Udan zer eginik ez badakizuen, neska-mutikook hauxe da zuen aukera: udako kirol eskola!**

Adin bakoitzak bere udalekua dauka aurten ere; izan ere, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailara bitarteko neska-mutikook guztiek duzue udako kirol eskolara joateko aukera. Eta horregatik Arrasate Kirol Proiektuko begiraleek aukera hauek proposatzen dizkizute:



**Nafarroa ezagutzeko**  
Bi aterpetxe hauek Nafarroako Erriberan daude. Eta oraindik han egoteko aukerarik ez baduzue izan aprobetxatu uda, horretarako egokia da eta. Santxo Handia izan zenaren lurraldeak aukera bikainak eskaintzen ditu ondo pasatzeko.

**Izen ematea**  
Arrasate Kirol Proiektuan ari zareten neska-mutikook izena emateko aukera daukazue dagoeneko.

Horretarako, AKPko koordinatzaileengana jo dezakezue zuen ikastetxeetan. Aprobetxatu aukera eta ondo pasa!

## Bi aterpetxe aukeran

### Beireko aterpetxera

LHko 3., 4., 5. eta 6. mailako neska-mutikook Erriberan dagoen Beireko aterpetxera joango dira. Oliten dago Beireko aterpetxea. Pitillas lakua dauka ondoan eta rokodromoa, voleibol zelaia, tirolinan aritzeko aukera eta baita ping-ponga ere.

Pitillas aintzira paradisu ekologikoa da eta hegazti migratzaile asko egoten da hantxe. Txori-zezenak, basahateak, zingira-mirotxa, zertzetak eta lertxun gorriak dira

ikusi daitezkeen hegaztiak batzuk.

### Onzineda aterpetxera

DBHko 1. eta 2. mailakoak Lizarrako Urederra ibaiaren ondoan eta autobus geltokitik bost minutura, oinez joanez gero. Santiagoko bidearen ondoan dago eta rokodromoa, gimnasio itxia eta kirola egiteko 2.200 m<sup>2</sup>ko karpa itxia ere bai. Horretaz gain, mendiko bizikletan ibiltzeko ibilbide ugari dago inguruotan, espeologia egiteko aukera dago, eskalada praktikatzeneko, piraguismoa egiteko eta baita kaino jeitsierak ere.

Lagunekin udaran ondo pasatzeko



## Asteburuko hitzorduak Apirilak 15, larunbata

### AURREKIROLA

- Musakola
- 10:00 SFX U/4 - S. Viator A + B  
SFX A - SFX D
  - 10:45 Erguin - SFX U/3  
Aramaio - SFX B
  - 11:30 S. Andres - La Merced  
SFX C - SFX E+Musakola

### ERRUGBIA

- Jturripe
- 10:00 NESKAK  
S. Viator A  
S. Viator B  
Erguin

### MUTILAK

- Erguin  
S. Viator B  
SFX A  
Aramaio

### ESKUPILOTA

- Uarkape
- 10:00

### NESKAK

- SFX A  
SFX U  
La Merced

### MUTILAK

- SFX U  
SFX C  
SFX B  
S. Viator C

### INFANTILAK

### SASKIBALOA MUTILAK

- S. Viator
- 10:30 S. Viator - M Lagundia B
  - 11:30 Arrasate B - Arrasate A

### NESKAK

- Atxabalta
- 10:30 Almen - S. Viator

### FUTBOLA NESKAK

- Atxabalpe
- 09:00 SFX A - La Merced

## Trankil, irabazi dugu!

Lasai, lasai zeuden STS taldekoak. Hamaika gol sartu eta gero, nola ez?



### POTROAK KALE

Araudia behin baino gehiagotan eman dugun arren, oraindik badira "paso" egiten dutenak. Oraingoan Potroak taldeari tokatu zaio. Ez zen neurketa epaitzera agertu eta antolakuntzak bi puntu kendu dizkio eta fiantza barik geratu da. Saukelu Scream eta Betrayer taldeen arteko partida beroa izan zen eta ondorioz, bi par-

tidako zigorra ezarri dio epaileak Egoitz Apraizi.

### KINIELA

A taldean dagoeneko sei talde sailkatu dira: You Know, Orlando, Komando, Kanpazar, AT Lokala eta DA Iriztu. Beste bi txartel daude jokoan eta hiru taldek dituzte aukerak: Irati STS, AC Surkos eta Betrayer. B taldean zazpi talde sail-

katu dira dagoeneko: Timof-tol, Dribling, Kamasutra, IKP, Branka, Aldibi eta Etxerat.

Lehian bost talde daude txartel bakarrerako: Garaje Oscar, KJ Basati, Txeyenex eta Aurrera Bolie.

### HIL ALA BIZIKOA

Irati STSk liderraren aurka jokatu du, You Knowren aurka. AC Surkos taldeak ere

ez du erronka makala: Komando Alpargat. Betrayer taldeak dauka teoriarazzen, Ume Zikinak taldearen aurka.

B taldean, bestalde, Garaje Oscarrek Potroaken aurka dauka. KJ Basatik Driblingen aurka, bigarrenaren kontra. Driblingek gainera aurretik, 12:00etan, beste partida bat dauka, Txeyenex taldearen aurka



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



## Emaitzak

### A taldea

Betrayer 8 - Saukelu Scream 1  
 DKB Kobate 4 - AC Surkos 9  
 Goma 2 2 - AT Lokala 2  
 Kom. Alpargat 7 - Etxe Mobil 2  
 Irati STS 11 - Ume Zikinak 1  
 Giraldilla Con. 1 - DA Iriztu 21  
 Kanpazar Har. 5 - Ori. Piratas 6  
 Fraguél Gol 5 - Xhasss Ugarte 1

### B taldea

KJ Basati 1 - Borrock & Roll 0  
 IKP 11 - Serengeti 6  
 Leya 2 - Dribling 3  
 Makanudos 1 - Txeyenex 13  
 Etxerat Tab. 8 - Alai Gozokiak 2  
 Aldibi 5 - Potroak 1  
 Garaje Oscar 8 - Makai 2  
 Timoftol 3 - Kamasutra 3  
 Sas T 4 - Branka Taberna 6  
 Txeyenex 2 - Leya 3

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
You Know	20	16	1	3	110	62	<b>33</b>
Orlando	20	15	2	3	114	62	<b>32</b>
K. Alpargat	20	14	3	3	83	65	<b>31</b>
AT Lokala	20	13	2	5	88	56	<b>28</b>
Kanpazar Harrobia	20	13	2	5	76	53	<b>28</b>
Irati STS	20	13	1	6	117	71	<b>27</b>
AC Surkos	20	13	3	5	97	63	<b>27</b>
DA Iriztu	20	11	4	5	99	77	<b>26</b>
Betrayer	20	12	1	7	84	58	<b>25</b>
Fraguel Gol	20	12	0	8	85	82	<b>24</b>
Xhasss Ugart.	20	11	1	8	102	84	<b>23</b>
Ume zikinak	20	10	3	7	98	74	<b>23</b>
Goma 2	20	11	1	8	81	63	<b>23</b>
Sau. Scream	20	10	3	7	68	59	<b>23</b>
Kobate DKB	20	10	1	9	87	73	<b>21</b>
Giraldilla Con.	20	5	0	15	55	179	<b>10</b>
Etxe Mobil	20	4	1	15	58	94	<b>9</b>
Atxanta el Ret.	20	2	2	16	33	119	<b>6</b>
Totem	20	3	0	17	18	40	<b>6</b>
Sokoakoak	20	2	1	17	23	51	<b>5</b>
Bar Nuevo	20	1	0	19	21	93	<b>2</b>
Lontxo Tab.	20	0	0	20	0	19	<b>0</b>

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Timoftol SMD	20	15	3	2	118	53	<b>33</b>
Dribling	19	16	1	2	91	42	<b>33</b>
Branka Taberna	20	13	3	4	138	86	<b>29</b>
IKP	20	14	1	5	113	76	<b>29</b>
Kamasutra	20	13	3	4	81	53	<b>29</b>
Aldibi	20	13	1	6	104	73	<b>27</b>
Etxerat Tab.	20	11	4	5	97	71	<b>26</b>
Garaje Oscar	20	9	5	6	87	65	<b>23</b>
KJ Basati	19	11	0	8	100	97	<b>22</b>
Txeyenex	20	10	2	8	89	80	<b>22</b>
Aurrera Bolie	20	10	2	8	56	65	<b>22</b>
Serengeti	20	9	2	9	61	73	<b>20</b>
AKTA	20	9	1	10	80	65	<b>19</b>
Potroak	20	8	3	9	64	64	<b>19</b>
Leya	20	8	2	10	66	75	<b>18</b>
Borrock & Roll	20	5	2	13	72	106	<b>12</b>
Makanudos	20	5	1	14	61	137	<b>11</b>
Alai Gozokiak	20	3	4	13	55	93	<b>10</b>
EPEH	20	4	1	15	43	56	<b>9</b>
Makai	20	3	2	15	68	153	<b>8</b>
KK Jauriaritzari	20	4	0	16	29	34	<b>8</b>
Sas T	20	3	1	16	57	113	<b>7</b>

**ARRASATE** **KIROLAK**  
 Kontzezio Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

## Hurrengo partidak / 21. jardunaldia

### Iarunbata, 15

Zaldibar	Epailea	Iturripe A	Epailea
08:50 Giraldilla Con. - Etxe Mobil	(Alai Gozokiak)	15:50 Xhasss Ugarte - Saukelu Scream	(Aurrera Bolie)
10:00 Makanudos - Alai Gozokiak	(Giraldilla Con.)	17:00 Makai - Aurrera Bolie	(Saukelu Scream)
11:00 AT Lokala - Kanpazar Harrobia	(Makanudos)		
12:00 Txeyenex - Dribling	(Kanpazar Har.)	<b>igandea, 16</b>	
13:00 Betrayer - Ume Zikinak	(Txeyenex)	<b>Zaldibar</b>	<b>Epailea</b>
14:00 Serengeti - Timoftol	(Ume Zikinak)	11:50 Kamasutra - AKTA	(AC Surkos)
15:00 Potroak - Garaje Oscar	(Serengeti)	13:00 Komando Alpargat - AC Surkos	(AKTA)
16:00 Branak Tab. - Aldibi	(Potroak)		
17:00 Etxerat Tab. - Sas T	(Aldibi)		
18:00 Irati STS - You Know	(Sas T)		
19:00 KJ Basati - Dribling	(You Know)	<b>Atsedena:</b> Goma 2, Orlando Piratas, DA Iriztu, Kobate DKB, Fraguél Gol, IKP, Leya	

## Eskola arteko gimnasia erritmikoa

Zarautzen izan ziren joan den larunbatean eskola arteko gimnasia erritmikoko txapelketan alebin, infantil eta kadeteetako gimnastak.

Taldeka alebinetan San Viator ikastetxea izan zen lehenengoa, 21 punturekin.

Banaka ikastetxe bereko Marta Etxebarria gimnasta izan zen lehena.

Kadeteetan San Frantzisko Xabier ikastola izan zen lehena 22,65 punturekin eta banaka, San Viator ikastolako Maria Etxebarria sailkatu zen lehenengo. Bigarren SFXeko Miren Bragado izan zen.

### TXAPELKETA BERGARAN

Hauek guztiak Gipuzkoako eskola arteko txapelketan izango dira Bergaran. Maiatzaren 20an izango da.



Idurre 1996an.

- alebinetan  
**taldeka:** esku libreekin, pilotekin.  
**banaka:** esku libreekin eta sokarekin.
- infantiletan  
**taldeka:** uztaiekin, pilotekin.

**banaka:** sokekin eta uztaiarekin.

- kadeteetan  
**taldeka:** uztaiekin eta sokekin.

**banaka:** uztaiekin eta mazekin.

### IDURRE GARTZIA

Kadete mailan ari da Idurre eta aurreko sailkapen proban bigarren izan zen, Irunen. Orain beste aukera bat dauka. Hirugarren aldia jokatu da larunbatean Donostian eta mazekin eta uztaiekin arituko da Idurre. Aurrekoan mazekin aritu zen.

Idurrek urteak daramatza gimnasia erritmikoan. 15 urte ditu eta 1986an alebinetan aritu zen Gipuzkoako txapelketan.

## Atxabaltar bat irabazle Gorlan



Itoiz Armendariz lehenengo izan zen Gorlan.

Ohizko kirola ez bada ere, igandean Txakur Leren lasterketa jokatu zen Gorlan.

Itoiz Armendariz Atxabaltarra izan zen bere saileko lehena. Sei txakur baino gehiagoko sailean jokatu zuen eta zortzi txakur erabili zituen lasterketarako.

Sailkapen orokorrean berriz, bigarrena izan zen Iruñako Jesus Raigosoren atzetik. Bi eta lau txakur bitarteko sailean ere noski lehena izan zen.

### MADRILDARRAK KALE

Azken hiru edizioetako irabazleak, Goyo del Real Madrildarrak, hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen; baina, bere sailean lehena izan zen. Lau eta sei txakur bitarteko sailean parte hartu zuen.

### IKUSLE ASKO

Euskal Herriko partaideez gain, Madrilgo, Burgosko eta Frantziako kirolariak ere parte hartu zuten. Ikusten ere jende dezente bildu zen Gorlan. Antolatzaileak gustura agertu ziren lasterketan izandako erantzunarekin.

## Urrea eta zilarra alebinentzat

Zumarragan jokatu zen Gipuzkoako alebinen txapelketa eta Arrasate Kirolak Atletico taldeko neska-mutikoei hiru domina ekarri zituzten handik. Lander Errastik eta Beñat Barberanek urrea irabazi zuten. Landerrek 1,38 metroko jauzia egin zuen eta Beñatek, berriz, pisu jaurtiketan, 8'42ko distantziara bota zuen 3 kiloko pisua.

Zilarra, berriz, Ander Trojaolak irabazi zuen. 60 metroko lasterketan aritu zen eta 8'38ko denbora egin zuen.

Larunbatean Gipuzkoako infantilen txapelketa jokatu da Ordizian. Ramon Lopez Erauskin, Asier Uribebarria eta Mikel Izquierdo disko jaur-



Arrasateko alebinak, Zumarragan.

tiketari lehiatuko dira.

Bestalde, larunbatean Gipuzkoako taldekako txapelketa jokatu da Anoetan. Arrasate Kirolak Atletico Taldea ere hantxe egongo da. Probak honako hauek izango dira: 100, 200, 400, 800, 1.500, 3.000 eta 5.000 metroko lasterketak, 110 eta

400 m hesietan, 300 m.ko oztopo lasterketa, altuera, luzera eta pertika jauziak, jauzi hirukoitza, pisu, disko, jabalina eta mailu jaurtiketa, 5 kilometroko martxa eta 4x100 m eta 4x400 m txandaka. Hemeretzi kirolari osatuko dute Mondragoeko taldea.

# AUKEA sariak 1999

Gaur bertan banatu dira 1999. urteko AUKEA sariak. Ane Lopez de Bergara igerilariak, San Andres Xake Taldeak eta Rosi Sarraoa igerilari ohiak jaso dituzte aurtengo sariak.

Gainera, San Andres Xake Taldeak eta Felix Izeta Maisu Handiak xake partida azkarak jokatu dituzte Udaltxean.

## ANE L. DE BERGARA

Hamahiru urterekin ekin zion igerian egiteari, Arrasate Igeri Taldean eta Espainiako txapelduna izan da 800 eta 1.500 metroan, bai eta 200 eta 400 m.ko Espainiako azpitxapeldun ere. Horrez gain, Europako Txapelketan Espainiako errekorra hautsi zuen 800 eta 1.500 m.ko probetan.

## XAKE TALDEA

San Andres Xake Taldeak aurtun 28 urte betetzen ditu. Hasieran Julio Martin, Eugenio de Andres, Pablo Urtubi



Rosi Sarraoa.

eta Manolo Garciak osatu zuten taldea. Manolo Sebastianek gazteen artean zabaldu zuen xake zaletasuna eta gaur egun 50 xake jokalaririk ari dira lau taldetan. Gipuzkoako lehen, bigarren eta hirugarren mailan ari dira.

## SARRAOA BETERANOIA

Rosi Sarraoa 1966an jaio zen eta 1978tik 1986ra ibili zen hegats-igeriketan. Ane Lopez de Bergararen aurretik ibili zen

hegatsarekin igerian eta bikain egin zuen. 1980-85 artean Espainiako txapelduna izan zen eta 1980-84 bitartean Euskal Herriko Kirolari onena izendatu zuten. Rosik Espainiako bederatzirekor egin zituen eta igeriketako zazpi zeharkaldi ere irabazi zituen; besteak beste Getaria-Zarautz-Getaria eta Bidasoako jaitsiera. Anek ere behin baino gehiagotan hartu du parte zeharkaldi horietan.



Ane Lopez de Bergara.

## Bigarren Aretxabaletan



Jon Lete bigarren izan zen Aretxabaletako lasterketan.

Eguraldi kaskarra izan zuten Arrasate Kirolak taldeko txirrindulariek Aretxabaletan, baina gogoz aritu ziren industrialdean atzera eta aurrera. Denboraldiko hirugarren lasterketa izan zen eta Jon Lete, Arrasate Kirolak taldeko txi-

rindularia, bigarren izan zen. Mendiolako gazte hau laugarren eta bigarren izan da denboraldia hasi denetik. Irabazteko gogorik ez zaio falta. Larunbatean Zumarragara abiatuko da. Ea bada, han irabazten duen!

## Nerea Mata Txapeldun

22 urteko eskoriatzar hau izan da Euskal Herriko aerobic maratoiko neskarik onena. Joan den larunbatean egin zen maratoia Donostiako Gaska kiroldegian eta 600 lagun baino gehiagok hartu zuten parte.

Sailkapen orokorrean bigarren izan zen Nerea eta nesketan, berriz, lehenengoa. Zorionak!



**ARRASATE  
KIROLAK**

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleentzako artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeko.

**Aurreko asteko erantzuna:** Tuckland marka mendiko botetan espezializatua dago.

**Galdera:** Marka hauetatik zeintzuk dira euskaldunak? Ternua, Altus, Lorpen, Tuckland eta Boreal?

Erantzuna: .....  
Izen-abizenak: .....  
Helbidea: ..... Tel.: .....

## Doinu berriak Oñatitik eta Txekiatik



Espainiako Txapelketan lehiatu izan da Ganbara abesbatza.

Musikaz blai gabiltza azken bolada honetan. Joan den asteburuan Argentinako abesbatza bat izan bagenuen, aste honetan beste bat izango dugu, hain urrutira mugitu gabe gainera, Oñatiko Ganbara abesbatza etorriko baita. Goikobalu abesbatzaren eskutik etorriko dira 20 gazte oñatiarrak. Parrokian izango da emanaldia, 20:00etan.

Orain 5 urte sortu zuten Ganbara beste abesbatza batzuetatik bildutako hainbat neska-mutilek. Era guztieta-

ko abestiak kantatzen dituzte: espiritualak, klasikoak, elizakoak, erritmikoak, musika afrikarra... Arrasaten emango dute aniztasun horren froga: 15 abesti eskainiko dizkigute, eta horien artean, elizako kantuak eta hainbat lurraldeetako herrikoiak izango dira nagusi.

### ESKARMENTU HANDIA

Esteban Urzelaireren zuzendaritzapean jardungo dute oñatiarrek. Oso gaztea izan arren -20 urte besterik ez ditu-


eskarmentuko zuzendaria dugu Esteban: 7 urterekin hasi zen musika ikasten eta Europako gazteek osatzen duten Canticum Novum abesbatzeko partaide ere bada. 1996.an hartu zuen Ganbara abesbatzaren ardura, Gorka Cuevak utzi ondoren. 1997az geroztik, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolatutako ikastaroetan ari da zuzendaritza ikasketak egiten.

### TXEKIATIK BISITAN

Hori abesbatzei dagokienez, baina, esan bezala, musikan

aberats gabiltza, eta astelehenean izango dugu horren beste froga bat. Izan ere, Arrasate Musikalen eskutik, Txekiako bi talde etorriko dira Mondragoera: Sinfonietta eta Brnoko Abesbatza Filarmnikoa.

Talde bakoitzak nortasun propioa duen arren, sarritan jotzen dute elkarrekin. Hauek ere esperientziadun musikariak dira, mundu osoan izan baitira kontzertuetan. Amaia antzokian ikusi eta entzun ahal izango ditugu, astelehenean, 20:00etan.



Txekiako ahots bikainak entzun ahal izango ditugu astelehenean.

## Ardo ikastaroa hasiko du AEDk

Badakigu ardoa jende askoren gustuko edaria dena. Ondo dastatu bai, baina ezagutu, berriz, ez dugu ardoa hainbeste ezagutzen. Hori dela eta, bigarren aldiz ardo ikastaroa antolatu du AED elkarteak, APRA Arabako Errioxaren Sustapenerako Elkartearen laguntzarekin. 1998an arrakasta handia izan zuen ikastaro horrek eta hainbat jende berrito ematea eskatu dio AEDri.

Edabe preziatu horren inguruko hamaika kontutan sakonduko da: ardo motak, elaborazio erak, dastapen tekni-



Ardo motak bereizten irakatsiko du enologo batek.

kak, etxeko bodegaren antolaketa... landuko dira. Dastapen praktika egunero egingo da. Hori guztia AEDk Pablo Uranga kalean duen egoitzan egingo da. Mikel Garaizabal enologo elorriotarra izango da irakaslea, orain bi urte bezala. Eskola egunak ondokoak izango dira: maiatzaren 9, 10, 11, 23 eta 24a, arratsaldeko 19:30etatik 21:30etara.

Izenematea, AEDn edo 943 77 12 28 telefonora deituta egin beharko da. 8.500 pezeta kostako da matrikula, 7.000 bazkideentzat. Badakizue, beraz: asko ikasi eta on egin!

DANIEL LASKURAIN (MARGOLARIA)

## “Margolariok merkatu mugatua dugu bailaran”

Bukatu da Gure-Leku tabernako bigarren Arte Plastikoko lehiaketa, eta Daniel Laskurain 34 urteko bergararra izan da irabazlea. Arte Ederretan lizentziatua dugu Daniel eta hainbat erakusketan egin du: Zarautzen bukatu berri du bat eta maiatzaren Bilbon zabalduko du beste bat. Lanpeturik egon arren, tartetxo bat egin digu.

—Noiz hasi zinen margotzen?

—Txiki-txikitan. Aita, Jose Antonio Laskurain, margolaria dut, eta berak erakutsi zidan. Idazten baino lehen ikasi nuen margotzen, eta ez diot behin ere utzi.

—Zein eragin izan duzu?

—Denetariakoak; horregatik, nire estiloa beste askoren nahasketa da: batzuetan abstraktoa, beste batzuetan figuratiboa... Lehengo margolariei begiratzen diet, baina telebistan ikusten dudanak ere dezentte eragiten dit.

—Telebistatik jasotzen duzu inspirazioa?

—Ez hortik bakarrik. Inspirazioa edonoiz eta edonon etor daiteke. Orduan, bururatzan zaizkidan ideiak apuntatu egiten ditut, gero margotzeko.

—Azaldu lezaguzu Gure-Lekuko lehiaketa irabazi duen margoaren esanahia.

—Gizon bat ikusten da, fetoaren jarreran. Milurteko berria zetorrela eta, gizon berriaren jaiotza irudikatu nahi nuen. Beste batzuek bakardadea, itxaropena... ikusi dute. Interpretazio asko ditu eta hala izatea gustatzen zait. Niretzat egiten ditut lanak, baina lagunentzako ere bai: gustatuko zaien eta



zer konklusio aterako duten pentsatzen dut.

—Lehiaketa asko irabazi duzu...

—Bai, pozik nago. 17 urterekin aurkeztu nintzen lehenengoz lehiaketa batera, eta 20rekin irabazi nuen aurrenengo saria, Euskadiko Arte Plastikoko lehiaketan. Leku askotara bidaltzen ditut lanok eta, egia esan, txapelketak loteria dira askotan.

—Nola ikusten duzu margogintza gure bailaran?

—Pintore onak badaude. Merkatua, berriz, mugatu samarra da, jendeak gauza klasikoak erosten dituelako, bodegoiak eta abar, eta estilo berriagoi beldurra diela dirudi. Nik beti esaten dut margogintza iraupen lasterketa dela, ea nork gehiago irauin: dirua eta astia ahal den lekutik atera behar izaten dira.

—Zuk lasterketa horretan jarraituko duzu, ezta?

—Bai horixe. Margogintza nire bokazioa da, eta sari gehiago irabazi ez arren, lan honetan jarraituko dut.

### aste gazte

#### ■ UDAKO EKINTZAK

• Diputazioak antolatutako udako egonaldiak, 14-17 urte artekoentzat. Ingeles edo frantses egonaldiak; urekintzak Almerian, Valentzian; kirol ekintzak Burgosen, Huescan; ingurugiro ekintzak Avilan, hipika Toledon; zeharkaldia bizikletaz Segovian... Aurreizien emate epea: maiatzaren 18tik maiatzaren 10 arte.

#### ■ LANA

• Mutrikuko Udalerako, euskara teknikaria behar da. Epea: apirilak 22.

• Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan egunkari ezberdinetan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma bat. Interesik edukiz gero, zatoz bulegora.

#### ■ IKASTAROAK

• Gazteria Zerbitzuak, Literatura Ikastaroa antolatu du “idazketa literarioaren lehen pausoak”. Maiatzaren 4an hasi eta ekainaren 1era arte, astelehen eta ostegunetan, arratseko 7etatik 9etara, Monterronen. Matrikula, 3.000pta/2.000pta ikasle edo langabeentzat.

• Oihulari Klown taldearen eskutik, antzerki-klown ikastaroa. Maiatzaren 6tik San Joanak arte, larunbata goizetan, 10etatik 13.30ak arte, Arrasate Musikalen. Matrikula 3.000pta/2.000 ikasle eta langabeentzat.

• Udaleko Emakume Sailak antolatua, autoestima ikastaroa, Pepa Bojoren eskutik. Asteazkenetan, 5.30etatik 7.30etara, apirilaren 11n hasi eta ekainaren 11ra arte.

• Perkusio ikastaroa, Nik Twinley musikariaren eskutik. Hastapen eta sakontze ikastaroak izango dira, apirilaren 27an hasi eta maiatzaren 1era arte.

Argibideak:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

“Nire lanek interpretazio asko izatea gustatzen zait”

## asteko filma



### Yoyes

Drama. Espainia, 1999.

**Zuzendaria:** Helena Taberna.

**Aktoreak:** Ana Torrent, Ernesto Alterio, Florence Pernel.

### HARIA

Film hau zeri edo nori buruzkoa den ez dago ia esan beharrik. ETAKo partaide izan zen eta bere kide ohiek hil zuten Dolores Gonzalez Katarain, Yoyesen bizitza eta heriotza kontatzen zaizkigu hemen.

### KRITIKA

"Bere garaiarekin engainatutako emakumea da Yoyes. Horregatik guztiagatik erreferente unibertsala da. Niri, estereotipoen gainetik, gizakia interesatzen zait, gizaki hori nola iritsi daitekeen gauzarik handienak eta miseria sakonenak egitera".

Horrela deskribatu zuen Helena Tabernak filmea egiterakoan zuen helburua: Yoyesen bizitzaren zentzu konkretua, baina baita unibertsala ere adieraztea. Bazen garaia honelako filmeren bat agertzeko, baina akaso denbora gutxiago pasa da behar den ikuspegia lortzeko.

## kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.  
Apirilak 29: **Kamelot**

Egun bakoitzerako **3** sarrera zozketatzen ditugu.

Doctor Deseorako irabazleak gaur gauean Soinuz Blaien Txartelak ekartzeko azken eguna: ASTEAZKENA

Izen-deiturak: .....

Tel.: ..... Eguna: .....

Bidalari gurera: Arrasate Press, Otalora 31

## irakurle eta entzule

Iturria: Discopolis

### diskoak

#### LOU REED

**Ecstasy (Warner), 2.395 pta.**



Alde basatian pasioa ematera joan zen Lou Reed, eta hantxe jarraitzen du. Horrela erakusten digu bere azken


diskoan, non bere estilo pertsonalari sendo eusten dion. Lou Reed bere onenean, horixe da bere azken hamalau abesti hauetan entzun dezakeguna. Jakinaenez, kanta guztiak ez izan maila berekoak: badaugu inpaktu handiko abestirik (*Ecstasy*, *Modern Dance*, *White Prism*, *Big Sky*...), beste batzuk txepel samarrak diren artean. Letrek, aldiz, guztiak dira entzutekoak eta irakurtzekoak: garratzak, sarkastikoak, deliranteak... Lehendik Lou Reed gustatzen bazitzaizun, gustatuko zaitzuz disko hau. Eta horietakoa bazara, gogoratu aurki Donostian izango dugula Reed jauna.

### liburuak

#### ROBINSON CRUSOE

Daniel Defoe

Literatura Unibertsala, Ibaizabal. 372 orr.,



Harrigarria da XVIII. mendean idatzitako liburu honek zelako erakarmena duen hirurehun urte geroago ere. Are eta gehiago, kontuan izanda eleberraren orrialde gehienetan per-

psona bakarraren gorabeharak kontatzen direla. Abentura liburu peto-petoa dugu, irakurlea lotu eta, amaitu bitartean, gati-bu hartzen duen horietakoa.

Prosagile paregabea da Daniel Defoe. Eta Aintzane Ibarzabal itzultzaile aparta. Irakurtzen ari zarela, konturatu ere ez zara egiten zein hizkuntzatan ari zaren. Erraz eta samur irakurtzen baita.

Aste Santuan irakurtzeko aukerako liburua.

## asteburuan zer

### kontzertuak

#### DOCTOR DESEO



Bi urte pasa dira Doctor Deseok diskorik eta kontzerturik ematen ez zuela, baina epe

hori, lehorte garaia izan barik, atsedan garaia zela argi dago. Disko berria plazaratu dute, *Atrapado en tu silencio... de incertidumbres y caricias*, eta hasi berri dute kontzertu sorta. Letrak lehengo tankerakoak dira, amodioari eta giza arazoei buruzkoak. Bestalde, diskoan ere betiko doinuak lantzen dituzten arren, sintetizadoreen ikutuari ez diote uko egin.

Andoainen jo zuten lehenengoz, eta gainera ipini zuten gaztetxea. Bergarako Jam aretoarekin ere beste hainbeste getatuko den susmoa dugu. Larunbatean izango da kontzertua, 22:00etan.

#### ZUZENEKO ROCKA IAMAI-N

Zabaldu berri da Kontzezino kaleko Iamai kafetegia. Arduradunen asmoa hilero zuzeneko kontzertu bat hartzea da, eta ostiral honetan izango da lehenengoa. The All Breakers talde zumarragarrik estreinatuko du Iamaiko agertokia, 22:30etan. Rock and roll estiloa lantzen du boskote horrek, eta klasiko bertsioak eta euren abesti propioak eskainiko ditu ostiralean. Horren ondoren, beste hainbat talde pasako dira Iamaitik. Zuzeneko nahi duen edonor gonbidatzen dute kafetegiko arduradunek.





**OKENDO**  
**KIROLAK**

eta primeran!

Maalako Errabala, 13 behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 92 76



# Programazioa

## OSTIRALA, 14

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
Alberto Elorza, Zelaizabal  
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Zortziko txikian**  
(errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko  
albisterik nabarmenenak,  
Eneko Azkaratek  
aurkeztuta.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**  
(errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

## IGANDEA, 16

- 13:30 **Asteko saioen errepika.**  
Jolasplast, Gatza eta  
Berakatza, Hamaika  
Magazin, Zortziko Txikian,  
Soinuz Blai, Astebete.

## ASTELEHENA, 17

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
Eulali Maskiaran,  
Matikua jatetxeko  
sukaldaria.

- 13:50 **Astebete** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Mondrasport.**
- 22:20 **Gatza eta Berakatza**  
(errepika).

## ASTEARTEA, 18

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
Kontxi Juantorena, Uxarte  
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Mondrasport.**
- 19:20 **Jolasplast.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**

- 21:30 **Hamaika Magazin.** Luis  
Elberdin sexologoa  
izango da gonbidatu.  
Eguzkia nola hartu eta  
hortentsiak nola zaindu  
erakutsiko digute. Ribera  
margolari espainiarra  
hobeto ezagutzeko  
parada izango dugu.  
Bidaia, berriz, Kubara  
egingo dute.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**  
(errepika).

## LARUNBATA, 15

- 13:30 **Asteko saioen errepika.**  
Jolasplast, Gatza eta  
Berakatza, Hamaika  
Magazin, Zortziko Txikian,  
Soinuz Blai, Astebete.

## Gatza eta Berakatza

PLATERAK: Okelak

NOIZ	PLATERA
Astelehena 17	Buztana.
Asteartea 18	Untxia berakatzarekin.
Asteazkena 19	Solomillo betea.

## ASTEAZKENA, 19

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.** Igor  
Ezpeleta, Elizondo  
jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Hamaika Magazin**  
(errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Aurrez Aurre** (errepika).
- 22:00 **Gatza eta Berakatza**  
(errepika).



**TOLDOS  
LECE C/B**

**Eguzkiari  
aurre egiten  
diogu inork,  
baino hobeto**

Kataide Industrialdea, 14  
Musakola • ARRASATE  
Tel.: 943 79 23 83  
Faxa: 943 77 04 45

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak  
eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

## BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 24 58

# Modako sexologoa

**Hamaika Magazin** asteartean, 21:30

Lehen ere nahiko ospetsua zen, baina ETBko "Sorginen Laratza" saioan astero agertzen hasi zenetik, puri-purian dago Luis Elberdin sexologo oreretera.


Bizarrak ikutu exotikoa ematen dio. Bekoki zabalak ere jakinduriaren ispilu dirudi. Mingainean, bestalde, ez du bilorik. Ez dela mozten, alegia. Batez ere sexu kontuetan.

Datorren asteartean hementxe izango dugu, "Hamaika Magazin" saioan. Sexua hasiera-hasieratik landu da saio horretan. Beraz, ez da harritzekoa Elberdin Arrasaten zela aprobetxatuz, gurera ekartzea. Ez zarete aspertuko, ez.

Baina saioa ez da hor amaituko. Oporrak gainean ditugun honetan, eguzkia hartzearen gorabeherak jorratuko dira: noiz, nola, zenbat, etab.

Eta pintura maite duzenok, Ribera margolari espainiarraren bizitza eta lanak ezagutzeko parada izango duzue.

Amaieran, Kuba izango dugu jopun-



Luis Elberdin.

tuan. Egia ote Kuba triste dagoela? Zer dago han bisitatzeko eta egiteko? Nola-koak dira kubatarrak?

Hori eta dezente gehiago, astero bezala, "Hamaika Magazin" saioan.

# Motzean

## Alazne Ostolaza



**Orain 25 urte jaio zen Itziazarren. Arrasate Irratiko esatari ibili zen hiru bat hilabete. Maiatzaren 2an berriro itzuliko da, Aitziber Aranburuzabarekin batera.**

- **Zergatik kazetari?**
- Hitzen mundua betidanik gustatu izan zaidalako.
- **Lanbidez aldatzekotan?**
- Idazle.
- **Arrate Irratia ala Euskadi Gaztea?**
- Euskadi Gaztea, biziagoa delako.
- **Irratsaiorik gustukoena?**
- Tertuliak, batik bat gau partekoak.
- **Gustuko janari bat?**
- Denetik. Batez ere jaki biziak.
- **Irakurri duzun azken liburua?**
- Obabakoak-ekin ari naiz berriro.
- **Karapaixoa ala ogi integrala?**
- Oraindik ez dut karapaixorik jan.
- **Oporretara nora?**
- Eguzkitarra joatea gustatuko litzaidake.
- **Zure dohain bat?**
- Poza zabaltzen omen dut nire inguruan.
- **Amets bat?**
- Nire bizitza bideratzea.

# ATBn esanak



*"Topaguneak sendotzeko beharra du, baina sendotuko da euskara elkarteak sendotzen diren neurrian. Horixe izango da gure lana datozen lau urteetarako".*

**Joxemari Muxika**

Topagunea elkarteko lehendakaria

**OSORIK  
PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**TTUKUN**  
Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK**  
Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

**LAKET**  
Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis  
Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxea salgai Oñatin, herri erdian. 70 m<sup>2</sup>. Tel.: 943 71 49 15, gauzez deitu.

• Etxebizitza salgai. Toki egokia. 84 m<sup>2</sup>. Berogailua, igogailua eta garajea. Tel.: 943 79 53 12.

### 2. Erosi

• Etxe bat erosiko nuke herri erdian, igogailuduna. Tel.: 943 79 81 25. 20:00etatik aurrera.

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai Zarautzen, ekaina, uztaila eta abuztuan. Erdialdean dago, terraza eguzkitsua eta garajearekin. Tel.: 943 13 03 42.

• 3 logelako etxebizitza alokagai, San Andresen. Tel.: 607 84 86 73. 21:00etatik aurrera.

• Apartamentua alokagai Torreviejan (Alacant) herrian bertan (Playa del Cura). Tel.: 943 79 32 54.

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat, Arrasaten. Tel.: 943 79 39 02

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko genduke Armaion. Tel.: 617 99 43 38. 20:00-22:00.

• 4 ikasle etxebizitza bila, eskola politeknikotik gertu. Tel.: 616 04 30 72. Jon. 606 36 07 45. Oier.

### 5. Etxeak osatzeko

• Gela bat zureztat San Andresen, pisu konpartitu batean. 21.000 pta hilero + gastuak. Tel.: 943 71 24 00, 226 luzapena (David), 667 48 30 94 (Oskar).

• Mutila behar da etxebizitza osatzeko Makatzenan. Tel.: 943 77 12 42. 8:00-15:00.

• Logela bat alokagai, Ferixalekuan. Tel.: 943 79 87 59. Teresa.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko San Andresen. Tel.: 943 79 32 28. Mikel.

• Bi gela alokagai Erguin kalean. Tel.: 639 58 93 66.

• Pertsona bat behar du etxebizitza osatzeko Arrasaten (Lehenbailehen) Tel.: 616 82 17 23. Garbiñe.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

## GARAJEAK

### 9. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Eduerne.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Ferrerías 42an 25 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Prezio berezia. Tel.: 943 78 12 32

### 14. Errentan emateko

• Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Gaixotasunagatik ezin dut atentitu. Tel.: 626 37 93 66.

## LANA

### 17. Eskaintza

• 16 urteko mutila, Mondragoeko tabernaren batean asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 943 77 01 83. Gauzez deitu.

• Enpresa edo tailer batean lan egin-

go nuke. Tel.: 943 79 37 68. Idoia.

• Arrasaten gazte arduraduna eskaintzen da tabernan edo antzeko nonbaiten lan egiteko goizez edo gauzez. Tel.: 943 77 14 32.

• Neska prest Arrasaten arratsaldez umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• 10 urteko esperientzia duen emakumea prest orduka etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo bestelako lanak egiteko. Kotxearekin eta euskalduna. Informearrekin. Tel.: 677 71 93 31.

### 18. Eskaerak

• Erizain laguntzaile tituludunak behar ditugu. Tel.: 943 79 72 11. Masaro eta Amaia.

• Emakumea behar da orduka lan egiteko. Tel.: 943 79 43 85. Rosa. 19:00etatik aurrera.

• Sukaldaria eta zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. Ahal bada esperientziaduna. Tel.: 943 71 43 45.

• Emakumea behar dut andra heldua zaintzeko, orduka larunbat eta igandetan. Tel.: 943 79 09 93. Pilar.

• Sukaldaria behar da taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 79 61 64.

• Mutil bat behar da furgoneta gidatzeko, Aretxabaletako tailer batean. Ford Transit. Tel.: 943 79 83 04.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

• DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

• Matematikako eskolak ematen dira. Esperientziadun irakaslea. Tel.: 616 55 03 18.

### 21. Eskaerak

• Alemanierazko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 20 15. Maite.

• Polakoa ikasi nahiko nuke. Tel.: 666 33 096. Sergio. Gauzez deitu.

• Bi neskek ingelesezko eskola partikularrak jaso nahiko lukete. Tel.: 943 79 09 71, Nerea eta 943 79 09 86 Naiara.

• 1. batxilergoko ikasle batek ekonomia eskolak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 98 07.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Citroën Xsara 2000 vts 16 v, SS-BG salgai. Tel.: 943 79 64 48. Jon.

• Nissan Vanette Coah salgai. 76.200 Km. 200.000 pta. Tel.: 943 79 69 14.

• Opel Astra GSI 2:0 autoa salgai. 115 zaldi, zuria. 1993koa. Tel.: 943 77 09 23. Roberto.

• Playstation erabili gabea. Prezioa: 15.000. Tel.: 943 79 52 27.

• Peugeot 806, 7 plaza. 2.0 gasolina. Tel.: 607 15 30 70.

• Suzuki SK.50 ziklomotorea salgai. Oso egoera onean. 100.000 pta. Tel.: 616 15 63 73.

• Renault 11 salgai. SS-AB (75.000 pta) Tel.: 943 71 54 59.

• Gas gas Trialeko motorra salgai. 250 cc. 92koa. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

• Bigarren eskuko teklatura, Yamaha Portatone (PSR-200) elektronikoa, salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 93 07.

• Karro denda berri-berria salgai, bi hilabetez erabilia. Bi ohe, egongelaxoa. Tel.: 943 78 70 74.

• Akuariuma salgai. 100 litrokoa da eta ur filtroa eta termostatoa dauzka. Tel.: 943 79 88 30.

• Nikon FM 10 argazki kamera salgai. Egoera onean. Tel.: 600 69 70 15.

• Errepideko bizikleta salgai, 57ko neurrikoa, koadro berria eta 7.020 aluminiozkoa. "Shimano 600". Osagaiak ipinita. 125.000 pta. Tel.: 943 78 00 28.

• Karro denda Inesca (Viena modelo) salgai. Ia berria. Tel.: 943 76 43 80.

• Antzinako pianoa salgai. Tel.: 943 79 47 17. Gaez.

• Cocker amerikarrak salgai. hogeita hamar txapeldun. Tel.: 666 54 77 15, 943 79 68 53, eguerdian.

• 99ko Wip It piragua salgai. Remo, bainu estalkia eta 4 globo. Tel.: 943 79 78 36. Unai

**27. Erosi**

• Diskoak eta LPak erosiko nituzke. Tel.: 943 79 76 90.

• Bigarren eskuko ordenadore portatila erosi nahi dut. Tel.: 943 79 77 85.

• Arrue markako panpinentzako kote garaia erosiko nuke. Tel.: 943 79 37 68.

• Billar bat erosiko nuke. Ez dadila oso garestia izan. Tel.: 943 77 17 58. Josu.

**31. Galdu**

• Puntuzko txaleko gris bat galdu dut Iturriotz kalean. Tel.: 649 88 79 22.

• Zorro beltz batean bilduta zeuden giltza batzuk galdu nituen, Zigarrola aldean pasa den astean. Aurkitu badituzu, deitu 943 79 07 80 telefonora.

• Inauteri domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Artxabaletan. Tel.:

945 44 52 00, 20:00etatik aurrera. Laneko Tel.: 943 71 92 00.

• Martxoaren 10ean koltxoidendako algodoizko 2 funda galdu nituen Tximeleta gozokidenda parean. Tel.: 943 79 80 25. Arantza.

• Herriko parrokiaren arkupean Nokia markako esku telefonoa aurkitu nuen. Berreskuratzeko deitu 943 77 01 42 telefonora.

**33. Bestelakoak**

• Dieta pertsonalizatua Nutrikarekin. Tel.: 619 32 62 27.

• Botatzeko dituzun egurrezko atek jasotzen ditugu. Tel.: 943 79 97 84.

• Zure sukaldeko mahaia, aulkia, armairuak edo gas sukaldea erretiratu behar badituzu, neuk hartuko nizuke. De i egidazu 616 12 57 26 telefonora.

• Martxan dagoen garbitasun enpresa saltzen dut, furgoneta, makinaria eta guzti, oso modu onean, negozioaz arduratu ezin naizelako. Hileko irabazia 450.000 - 500.000 pta. Interesatuok deitu 629 40 47 82 telefonora.

• Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

**32. Aurkitu**

• Urrezko katea dominarekin, lñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

• Udalara bidean giltza batzuk agertu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.


**HARREMANAK**

**35. Kontaktuak**

• Lurrin eta kosmetika enpresa multinazionalak saltzaileak behar ditu. Taldeko buruak eta komertzialak behar dira. Soldata altuak eta Estatu mailako hedapena. Bitxi eta Gold Field katalogoa zure esku jarriko dugu. Tel.: 670 27 04 96.

• Xabi naiz eta 36 urtetik beherako mutilekin harremanak izan nahi nituzke. Asmo bera baduzu, idatzi posta kutxa honetara: 91 zbk. 20560 Oñati Gipuzkoa. Nire aldetik erabateko zuhurtasuna.

*Kalitateak mugarik ez*



**ARGI-PLASTIK**

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabilioia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE



**M**ondragoen euskal jaia ospatu zen 1969. urtean eta Lore Gazteak dantza taldeak argazkia atera zuten. Orduan, orain ez bezala, takian potian izaten ziren nagusien euskal jaiak.

Goizean goiz inguruotako dantzari eta txistulariek bat egiten zuten euskal jaia ospatu beharreko tokian. Kalez kale dantza erakustaldia eginez ibi-

li ondoren, herriko elkarteetara joaten ziren bazkaltzera. Segidan, arratsalde partean, alardea egiten zen: Herriko Plazan bildu eta herri bakoitzeko dantza taldeak saio txiki bat eskaini ohi zuten.

Argazkian ikusten den moduan, jantziak aldatu dira gehien dantza taldean. Euskal Dantzarien Biltzarrak asko zaindu izan du beti dantza bakoitzari dagokion janzkera. Mondragoeko taldea 60ko

hamarkada ingurutik da Biltzarreko kide eta, ondorioz, ahalegin berezia egin du dantza berriak ikasi eta bakoitzari dagokion jantzia erabiltzen.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita hauetxek dira 69ko Lore Gazteak taldeko dantzariak: Marga Mercader, Elena Balanzategi, Rosa Larrañaga, Mari-bel Etxebarria, Pili Romero, Maria Luisa Altuna, Xeli Arregi, Regina Larrañaga, Espe Mercader, Itziar Arregi, Juana

Maria Arregi eta Izar Mendikute.

Mutilak, berriz, honakoak dira: Kike Gomez de Segura, Eugenio Otsoa "Gerra", Kamara, Jose Daniel Garcia de Andoain, Etxagibel, Jabier Arregi, Bixente, Iñaki Iraola, Joxe Guri-di eta Joseba Etxebarria.

-----  
*Argazkia: Lore Gazteak dantza taldea*  
*Berriemailea: Xeli Arregi*

**Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.**

**Neurria ez da arazoa izango udaberriko moda gaztea jazteko.**

**Neurri guztiak ditugu, baita zabalenak ere.**

**Laura**



**Erdiko Kale, 30 • ARRASATE**  
**Tel.: 943 79 05 80**

# LAN-IRTEERA UGARI DITUEN PROIEKTUA HURRERA ZAITEZ!



Gure **Ikastoletan Batxilergoko** aukera guztiak eta **Heziketa-Zikloetan** eskaintza zabala:

Batxilergo Teknologikoa, **Eskola Politeknikoak** ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa.



**Arizmendi**

Larrin Plaza, 1  
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

# Astra

## Errepideari itsatsita.



**Teknologia eskubidea da, ez pribilegioa.** Opel Astrarekin, teknologia eta segurtasunik aurreratuenaz gozatu ahal izango duzu. Opel Astrak Lotus bidez kalibraturiko suspentsioko sistema berritzailea dauka eta bere karrozeriaren tinkotasun paregabe eta norabide-efektuko atzeko ardatzari esker, egonkortasunik handiena du autoak. Opel Astrak segurtasun gorena eskaintzen dizu. Asfaltora itsatsita egoteko.

**Serieko ekipamendua:** ABS elektronikoa lau gurpiletan, airbag handia gidariaren eta albokoaren jarlekuan, alboko airbag-ak, lagunduriko direkzio elektrohidraulikoa, DSA suspentsioa, norabide-efektuko atzeko ardatza, altuera eta sakontasunean egokitzeko moduko bolantea, goragailu elektrikoak, irrati-frekuentzia bidezko urrutiko agintailudun itxigailu zentralizatua, lapurreten aurkako geldiarazle elektronikoa, funtzio anitzeko pantaila: irrati diala, tenperatura eta ordua, erdian beso-jartzekoa maletategira irekia, karrozeria galbanizatua, korrosio-kontrako 12 urteko bermearekin.



1.6tik 2.0 16v-rainoko motorrak gasolinan eta 1.7, 2.0 DI 16v eta 2.0 DI 16v dieselean. 3, 4, 5 ate eta Caravan karrozeriak. Akabera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive

[www.opel.es](http://www.opel.es)

# OPEL

# TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA  
Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

## TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3 (escatu pabiloia) Tel.: 943 79 05 86